

...eta

Kitto!

952 zkia.
2015-XI-27



Sanandresak 50 kilometrorra

- ◆ IGOGAILUAK
- FATXADAK
- ▲ MANTENIMENDUAK
- 🛡 ERREFORMAK ETA PROIEKTUAK
- 🏠 ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA

📞 943 82 04 07



www.eslaban.com

ENPRESA HONEK
NEWBEE
EUROPAKO PROIEKTUAN
HARTZEN DU PARTE
Zure etxerako ideia eraginkorren
software sortzailea.





innovadental
CLINICAS

20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT
20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko arreta jaso dezazun

www.innovadentalclinicas.com



Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar** / Tel: **943 70 00 82**



José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia** / Tel: **943 02 59 55**

Belaustegi Baserria

JATETXEA
www.belaustegi.com

*Jaietan ondo pasatu...
eta mahaian gozatu...*

**San Andres
MENU BEREZIA**



**ELGOIBARKo
San Miguel
ganean**

Tel. 943 74 31 02



Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ASTEAN ESANAK

"Ikertzaileek garbi ikusi dute bihotza ez dela berdin zahartzen emakumezkoetan eta gizonezkoetan. Alabaina, bihotzaren funtzionamendua hobetzeko ematen den tratamendua berdina izaten da guztientzat, eta muskulueren bolumena gutxitzeko helburua izaten du. Azterketaren emaitzak ikusita, ikertzaileek ohartarazi dute tratamendu hori emakumezkoentzat kaltegarria izan daitekeela. Tamalez, ez da medikuntza gizonezkoen neurria eginda dagoela erakusten duen adibide bakarra"

(ANA GALARRAGA,
ELHUYAR ZIENTZIA)

"Politikoki polita denez, boladan dago bizikleta goraiatzea, baina hirian bizikletaz ibili zaleok aurki lurpean ibiltzen hasi beharko dugu martxa honetan, eta han ere larri ibili metroak izatea lehentasuna"

(JOXERRA GARZIA,
IDAZLEA)

"Espero dut musulmanek manifestazio jendetsuak egitea, kondentzen eta Alak hilketarik ez duela nahi oihukatzen. Isiltasuna konplizea da"

(ISABEL SAN SEBASTIAN,
KAZETARIA)

"Ez dut gogoratzen kristautasunaren izenean Norvegiar egindako atentatuaren ondoren katolikoek manifestazio jendetsuak egiteko eskatu zenuenik"

(DAVID FERNANDEZ,
CUP-EKO POLITIKARIA)

"Kontuan izanez Venezuelak, 25 milioi biztanlerekin, Kolonbiako 5 milioi seiehun mila errefuxiatu hartu dituela eskubide guztiak aitortuz, zertan ari da Europa negu gorrian ate-joka heldu zaizkion horiek?"

(PATXI ZABALETA,
EH-BILDUKO POLITKARIA)

"Aurreko hilean, ETB1en gehien ikusi ziren 40 emanaldien artean 25 kiroletakoak izan ziren. Tartean ziren mexikarren rantxerak. Zer ekarpen egiten diote rantxerek euskarari?"

(NERREA LLANOS,
PP-KO POLITKARIA)

KOSKABILLUAK.- Barrabilak. "Baloia ateratzera juan dok, baina azkenian koskabilluetan ostikada ederra hartu jok".

KOSKABILLUAK ZIMURTU.- Egundoko beldurra edo izua izan. Gaztelera 'acojonarse'. "Koskara urten ebanian, kanpantorriari kanpokaldetik buelta bat emoteko, koskabilluak zimurtu jakozen batera".

eskutitzak

GAUZA BAT ARRAZOITU, BESTEA EGIN. AZKARRAK GARA BENETAN!

Zapatua zen, T. Etxebarria kalean, arratsaldeko zazpi t'erdia aldera. "El Corte Inglés" parean, mantekin, arropak eta poltsak saltzen, bi perutar postu eta bi beltzenak. Arrapalada batean dena jaso eta ihes egin zuten. Arraioa: bi munizipal zetozela anbulatorio partetik. Harritu egin nintzen, Eibarren horrelako postuekin nahiko erlaxatuak gara-eta.

Bi munizipalak geure parera heltzean galdetu nien ea zergatik ez zieten pakean lagatzen "gizarajo" horiei. Arraioa: Eibarko dendariak kexatu egiten dira. Orduan nik: hori ilegal bada, zergatik ez dituzue harra-patzen? Munizipal batek esan zidan beste herrietan hemen baino txartoago tratatzen dituztela eta, kexarik banu, udaletxera joateko, "bera langile soila zela". Udaletxeraino igo eta berriro eman zuten beheranzko paseoa. Argi gera zedin Eibar erdialdean horrelakoak ez direla baimentzen.

Ez dut poliziaren portaera ulertzen. Kexa badago Eibarko dendarien partetik eta, berez, legezkoa ez bada horiek kalean saltzen ibiltzea "delitugileak" harra-patu beharko lituzkete. Hori horrela, Eibarko udal eta poliziaren portaera oso faltsua da. Dendariekin ondo gelditu nahi dute, baina ez dute "potrorik" lagun horiek atxilotzeko. "Langile soilei" eskatuko nieke azal-

tzeko zein den Eibarko Udalaren postura ofiziala p-
perik gabeko etorkinen inguruan.

Bigarrenik (badakit orokortze handi batean sar naitkeela) alderaketa txiki bat egin nahi nuke Europa mailan gertatzen ari den inmigrazio krisiarekin. Gure Europako liderrekin asko kexatzen gara komunikazio bide txiki, ertain eta interneteko sare sozialetan, euren erabakiak hartzeko moteltasuna dela-eta. Politikoek postura horrela laburbiduko nuke: ez ditugu gure artean nahi, baina itxasoan hiltzen badira oso gaizki ikusten dugu. Eibarren bertan poliziak eta Udalak antzerako postura dute: ez dituzte gure kaleetan nahi, baina ez dute ahaleginik egingo arazoa zuzentzeko.

Oso modan dagoen memoriaren bueltan erreflexio bat: oso ondo iruditzen zait orain dela 80 urte gertatu ziren hilketa ez-justuak salatzea, edo azken 40 urtetan Euskal Herrian gertatu direnak. Baina gaur egun European milaka lagun hiltzen dira Asia eta Afrikatik sartu nahian. Eta beste milaka oso pobrezia larrian bizi dira. Gutaz hemendik 40 urtera idazterakoan us-te dut badakidala zeintzuk izango diren memoriarako borrokatzaileen biktimak. Ea azkarragoak garen oraingoan.

ION ZENDOIA

BAKAILAO LEHIAKETAN EUSKERA NON?

Aurreko domekan, nire seme-alabek horrela eskatuta, bakailao-txapelketara joan ginen, euren ikastolako lagun batzuk parte hartu behar zutela eta haiek ikustera. Sariak banatzeko unean iritsi nintzen. Ohol-tza gainean alkatea eta ezagutzen ez nituen beste bi gizon: oholtzaren beheko aldean, euskeraren aldeko mezuak -ez dut ondo gogoratzen zer jartzen zuen, bai-

na euskera erabiltzera animatzen zuten hainbat kartel zeuden-. Eta hara nire sorpresa! Sari-banaketa guztia gaztelera hutsean! Lotsa eta pena handia sentitu nuen; nola gerta liteke horrelakorik nire herrian? Penagarria benetan. Espero dut idatzi honek zeozertarako balio izatea.

NURIA RODRIGUEZ IBARRA



Euskara Elkarteak

ARGITARAZTZAILEA: ...eta kito! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekarriaren E-MAILak: erredakzioa@etakitto.es / komunikabideak@etakitto.es /
publizitatea@etakitto.es **Elkartearen E-MAILak:** elkarteak@etakitto.es / normalizazioa@etakitto.es
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.
ADMINISTRAZIOA: Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Ana Aizpurua.
ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.
ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIAK:** Aitor Buendia
BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.100 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
COPYRIGHT-A: ...eta kito! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679
("...eta kito!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETTA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIZKARIA

Beldur Barik jaixa azarokuak agurtzeko

Azaruan indarkerixa matxistaren kontra antolatutako programia gaur 18:30ean Portalean hasiko dan Beldur Barik jaialdixak agurtuko dau. Eli Pagola, Manu Goigoga eta Nerea Elustondo bertolarixak ekingo detse ekitaldixari, Desiree Magro gai-jartzailiak emondako gaixeri jarraituta. Segidan, lehiaketara gure herriitik aurkeztutako sei bideoak proiektatu eta irabazlieri sarixak banatuko detsez. Emakumien alkartiak eta udal ordezkariak astelehenian Andretxean emondako prentsaurrekuan ordura arte



Astelehenian Andretxean emondako prentsaurreko irudixa. SILBIA

egindako jardueren inguruko baloraziño "oso positibua" egin eben eta ekitaldixak parte-hartze haundixa euki dabela azpimarratu eben: aurreko astian egindako "Women in Black" ekimenak 80 bat andra batu zittuan eta neska gaztiendako Indianokuan emon zan autodefentsa ikastaruan 15 neskak jardun eben. Aste honetan andra errefuxiatuak jasaten daben indarkerixari buruzko hitzaldixa egin zan martitzenian eta eguaztenian, barriz, alkarataratzia Untzagan.



Gasolindegixetan telefonuak opari

Aurreko astian BQ AquarisE4 markako smartphoneak oparitu dittue gasolindegixetan, AVIA klubaren bittartez egindako zozketan eta Eibarren daguzen AVIA gasolindegixetan be telefono bana oparitu dabe. Argazkixan, Azittaingo irabazlia sarixa jasotzen.

Herri ondarea zaintzeko taillarra

Udal Artxibuak, Itzio DBH ikastetxiarekin alkarlanian, 4. DBHko ikasliendako ikas-unidade batzuk sortu dittu, ikastetxe horren "Herri ondarea eta kultura zaintzeko eta berreskuratzeko taillerra" aukerako irakasgaiari dagokion programazioaren barruan. Herrixaren memorixa kolektibua ezagutzia da asmua eta, horrekin batera, herrixarendako aparteko interesa daken dokumentuak gordetzen diran tokixa gaztiak barrutik ezagutzia. Aurreko ikas-unidadia aste honetan, eguaztenian garatu dabe eta bigarrena ikasturtiaren bigarren hiru hillekuan landuko da.

Maliko atentatua gaitzesteko konzentraziñua

Astelehen eguardixan konzentraziñua egin zan Untzagan, udalak deittuta, Malin gertatutako atentatua gaitzesteko, astebete lehenago Parisekuarekin egindakuaren bidetik.



Batez be politikuak hartu eben parte konzentraziñuan. SILBIA



**San Andres
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Isasi, 31 Egunero 06.00-22.00
943 207 737

*Etorri!
Zure etxian
egongo zara!!*

Astelehenetik
ostegunera
PIINTXO-POTEA!

KAFETEGIA OKINDEGIA

SUTLONDO

Guraso berbalagunak patinatzen

Aurreko zapatuan, Gurasoak Berbetan-eko guraso eta seme-alabak Donostiako Txuri Urdinen egon ziran izotz gaiñian patinatzen. 40 bat lagunek egin eben ekimenarekin bat eta, argazkixan ikusten dozuen moduan, ipurdikoren bat edo beste tarteko, giro paregabian pasatu eben arratsaldia.



40 bat laguneko taldiak hartu zeban parte Donostiako Txuri Urdiñeko ekitaldixan.



Txokolate artian jolasian

Edarto pasau eben aurreko astian Gurasoak Berbetan egitasmoko kidiak, Barixakuak Jolasian programiaren harira ...eta kitto! Euskara Elkartearen lokalian arratsalde pasa egiteko preparau zetsen "Altxorren bila" jokuan, txokolatiarekin lotutako galderak erantzun eta pisteri batetik bestera segitzen. Eta amaitzian umiak ez eze gurasuak be euki eben premixua, daneri txokolate epela emon zetsen eta.

Txapak, poltsak eta pegatiñak taberna eta dendetan

Asteburuan hainbat ekimen garatuko dittue Ostalarik eta Dendarik Berbetan programaren barruan, San Andres jaixetan zein gabonetan, urtiak dittuan 365 egunetan bezala, herriko denda eta tabernetan jendia euskera erabiltzera animatzeko.

Laster ikusiko dittuzue "Atean ez gelditu, euskaraz aritu!" goiburua idatzita daken pegatinak Eibarko dendetan erositako opari-paketiak apaintzen. Ekimenarekin dendarixak ez eze bezeruak be euskera erabiltzia nahi dabela diñue arduradunak, "euskeriak bizitzan egunero topau geinkiazan egoera guztietarako balixo dabelako, baita erosketak egiteko be, animatu eta euskera oparitu!". Eta, horrekin batera,

tabernetan be euskera gehixago erabiltzia lortzeko asmuarekin, hainbat tabernari ikusiko dittuzue **Euskeraz Eskatu** diñuan txapia soñian dakela. Eta gaur kalin bazabizie **Euskaraz Primeran!** idatzita dakan poltsia etxera eruateko aukeria eukiko dozue, "herrixan zihar horrelakuak banatzen ibilliko gara eta. Holan, poltsa erabiltzen dozuen bakotxian, euskeriak erosketarako be balixo dabela goguan eukiko dozue. Erabilli euskera, euskera biziko bada geuk erabiltzen dogulako izango da-eta!".





Funeraria Ehorztetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>	
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> <p>GRUPO Funeuskadi</p>	

info@gerritek.net
www.gerritek.net

SOLUZIO INFORMATIKOAK

Marka guztietako zerbitzu teknikoa eta salmenta

Neurrira egindako software-aren garapena

Gerritek
INFORMATIKA

Txaltxa-Zelai, 4-6 Tel: 943-033892

asteko

24

datua

funziño izango dittue
otsaillaren 12ttik martxuaren
16ra arte iraungo daben
Eibarko Antzerki
Jardunaldixak. 20 konpañia
etorriko dira, euretako
hiru euskerazko funziñuak
eskintzera.



Javier Gorosabel deitu detse teleskopixo bateri

Aurten, apirillian hil zan Javier Gorosabel Urkia astrofisikuaren izena emon detse atzo Mexikoko San Pedro Obserbatorixuan inauguratu eben BOOTES-5 estaziño astronomikuaren teleskopixo robotikuari, eibartarra astrofisiko zelan

egitten zan ikusi eban Andaluziako Astrofisikako Institutuaren (CSIC) ekimenez. Ekitaldixan, bestiak beste, Alberto J. Castro-Tirado CSIC zentruko ikerlarixak Eibarko alkatiak udalaren izenian idatzitako testua irakurri eban.



50 €ko bonuen irabazliak

Eibar Merkataritza Gune Irekixak Facebooken dakan orriaren bittartez egindako zozketan, jarraitzaillien artian 50 euroko balixua daken erosketa-bono bi oparitu dittue eta irabazliak (Adela Mielgo eta Yanira Rivero) pozarren juan ziran premixua jasotzera. Bestalde, atzo arratsaldian presentau zittuen Gabonen inguruan preparau dittuenak, udaletxian egin zan ekitaldixan eta, handik urten eta jarraixan, kaliak apaintzen dittuen argixak ixotziarekin batera abiatu zan Gabonetako kanpañia.

Ekingunereren topaketia

Ekingune, ekintzaillien arteko lankidetzeta eta sustapenerako alkatiak "Ekingunerekin hausnartzen" topaketia antolatu dau abenduaren 3rako (egunerako). Saiua Arrate Kultur Elkartearen egoitzan egingo da, arratsaldeko 19:00etatik 21:00ak arte eta parte-hartzia duan izango da, baiña aurretik abisatzeko ekingune@ekingune.com helbidera idatzi edo 653 709 150 / 943 208 420 telefonuetara deitu leike.



Tomas Meaberi omenaldixa

Euskadiko Gazte Sozialistak erakundia 1903. urtian sortu eban Tomas Meaberi omenaldixa egin zetsen aurreko zapatuan, Eibarko

sozialistak Untzagan daken egoitzak (Casa del Pueblo dalakuak) hartu eban ekitaldixan. Julia Iru-retagoienarekin ezkondata egon zan Meabe eta bixak Eibarren alkarrekin bizitzen egon ziran "Adelante" astekari sozialista zuzendu eban sasoiari. Bere heriotzaren mendeurrena dala eta omendu dabe, plaka oroigarria ipiñita.



ZURICH

Lejardi S.L. Aseguru Agentzia

Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar

San Andres Zoriontsuak!

MAIXA TABERNA

Calbeton, 8
943 11 65 96

- Pintxoak
- Ogitaratekoak
- Kazuelitak
- Pizak



943 20 67 65
Bista Eder, 11

Eguneko menuak
Bokatak
Razioak
Menu bereziak

Oishi

su beroa
jatetxea



OISHI
PINTXO BEREZIAK

CATERING

943 20 29 55
627 41 78 33
Untzaga plaza

SLOW

Ego Gain, 10 943 25 41 33

XOK

Onda pasau!

GURE

LEKU

Isasi, 3
20600 EIBAR

☎ 943 20 71 89

TXOKO

TXOKO

Giro alaia Sanandresetan!

UNTZAGA PLAZA, 10
20600 EIBAR

hirurok

TABERNA

- Ogitaratekoak
- Plater konbinatuak

Errekatxu, 1
Tel. 943 56 72 06

JATETXEA

Gurbil

URTEBETETZE JAIK / GOSARIAK / EGUNEKO MENUA
HITZARTUTAKO MENUAK / PLATER KONBINATUAK
KARTA / HANBURGESAK / OTARTEKOAK / ...

ORDUTEGIA: asteleheneretik ostiralera (10.00-16.00 / 18.00-22.00)
asteburuetan (12.00-etatik aurrera)

Isasi, 1 Tel. 943 20 11 52

Beleko



Bista Eder 2

Ahara

Untzaga Plaza, Eibar
943 043 782



Usartza Pagolak Maialen Lujanbioren eskutik jaso zeban txapela. MAIALEN



Exfibar seillu erakusketia domekara arte egongo da zabalik. LEIRE ITURBE



Usartza Txistulari Taldiak Ganbera Kontzertua eskindu zeban Coliseoan.



Nino Bravoren abestixak Astelena girotu zeben barixakuan. LEIRE ITURBE

Jaixetarako beroketak eginda

SAN ANDRES EGUNA AILLEGAU BAIÑO LEHEN OINDIOK ASTEBURU HAU OSORIK PASATZIA FALTA BAJAKU BE, Santa Zezilia eta beste hainbat kontu tartian, aurreko astian hasi giñan asteleheneko jairako "entrenamenduarekin". Arrate Kultur Elkartearen eskutik martitzen eta eguaztenian egin zan XII. Eibarko Pintxo Lehiaketako sari nagusixa, pintxo onenarendako "San Andres Sarixa" Iturri tabernakuak eskuratu dabe "London calling" izenekuarekin. Epai-mahaikuak "sartzeko moduko pintxorik topau ez dabela eta", aurtan ez da bertako produktuekin egindako pintxo onenari saririk banatuko, baiña horren or-

dez Originaltasunari Sarixa emotia erabagi dabe eta Deporrekundako izan da sari hori, "Depor Bitoque" pintxuari esker. Eta Publikuaren Sarixa Hirurok tabernakuak irabazi dabe, "Bitukokatata" izenekuarekin. Epaimahaikidiak pintxo guztien kalidadia azpimarratziaz gain, erabagixa hartzia "gatxa" egin jakuela diñue eta antolatzailliak parte hartu daben guztieri eskerrak emon nahi detsez, "pintxuak preparamatzeko zein aurkezteko orduan ipiñitako ilusiño eta egindako bihar izugarrixarengaittik".

Barixaku arratsaldian ...eta kitto! Euskara Elkarteak urtero antolatzen daben San

Andres bertso jaialdixa hartu eban Portaleak eta, bertsolaritzan gorenian daguazten lau lagunekin osatutako kartelak areto nagusixa betetzia lortu eban. Jaialdixa hasi baiño lehen, XXI. Bertso Paper Lehiaketako irabazlieri sarixak banatu zetsazen eta sarittutako bertsuak kantau zittuen. Eta gabian, barriz, Nino Bravo gogoratzeko Astelena frontoian egindako kontzertura juandakuak pozarren entzun zittuen abeslari valentziarraren kantu ezagunak, Cieli-to Musika Bandak interpretata eta Serafin Zubiriren ahotsian.

Eta barixakuko emanaldixa ez zan izan asteburuko bakarria Eibarko Musika Ban-



- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A
 info@pinturasarrate.com
 Tel. 943 20 41 04 Faxe: 943 70 06 89

**BOLINTXO
OKINTEGIA
GOZOTEGIA**

**Eguneroko
ogia**

☎ 943 20 40 66 (Errebal) ☎ 943 20 36 06 (Legarre)





27 bikotek hartu zeben parte Eskolarteko Bakillau Txapelketan. LEIRE



Pedro Zalduegik bereganatu zeban Sostoaren otarra.



"Depor Bitoque" pintxo izan zen originalena.



"Bitukokatata"-k jaso zeban Publikuaren Sarixa.

Iturriko "London calling" izan zen pintxo irabazlia.



dakuendako. Izan be, zapatu gaberdiko eguraldi eskasak kalia ibiltzeko baiño etxerako gogo gehixago emon arren, bandako musikuak ez eben kale egin eta, urteroko moduan, **Santa Zeziliaren omenezko serenatia** eskindu eben, hori bai, Untzagako karpiak babestuta.

Pixka bat aurretik, zapatu arratsaldian **Sostoa abesbatzako kidiak** ibilli ziran kalia **kantatzen**, Santa Zezilia goguan eta, etxera bueltau baiño lehen, gabonetako otarra zozketatu eben eta sarixa erretra-

tuan ikusten dozuen Pedro Zalduegik eruan eban, 12.248 zenbaki sariduna beria zan eta.

Domekan Untzagan egindako **XII. Eskolarteko Bakillau Txapelketan** herriko eskola guztietako ikasliak osatutako 27 bikotek jardun eben eta Ana Egia eta Alba Duque (12-14 urte) eta Jone Etxabe eta Maite Izquierdo (14-16 urte) aukeratu zittuen epai-mahaikuak sarixa jasotzeko. Ikastetxe onenaren sarixa, barriz, Itzio eskoliarendako izan zan. Eta gaztiak baki-

llaua preparatzen eben bittartian, Portalean **Exfibar 2015 XLVI. seillu erakusketia** inaugurau eben. Aurten Eibar Foball Talldiaren sorreraren 75. urteurrenari eskindutako erakusketia domekara arte ikusteko aukeria egongo da, gaur 18:00etatik 20:00etara eta asteburuan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Eta hórretxekin batera, baiña Coliseo antzokixan, **Usartza Txistulari Talldiak emondako Ganbera Kontzertuak** aulki guztiak betetzia lortu eban beste behin.



ENEKO MALLAGARAY: Fisioterapia, Osteopatia eta Psikoneuroinmunologia Klinikoa (PNIC)

JULENE IRAZU: **Fisioterapia Uroginekologikoa, Erditze Prestaketak eta Zoru Pelbikoa**

MIKEL ARCE: **Entrenamendu Pertsonalizatuak, Martxa Analiakiak eta Taldeko Kirol Jarduerak**

IRATI AYERZA: **Inteligentzia Emozionala eta Hazkuntza Taldeak**

BESTE ZERBITZUAK: **nutrizioa, meditazioa, haur masajea, laktantzia eta haur eramate aholkularitza, hitzaldiak, etab.**



Estaziño, 8

943 50 88 19

622 14 58 58

info@kenkogunea.com
www.kenkogunea.com

Basarrietako onena kalia alkarrekin

San Andres egunerako antolatu daben programaren barruan azokiak toki berezixa betetzen dau urtero eta astelehenian be hala izango da. Aurten 38. ediziñua beteko daben San Andres Nekazal Azokiak, betiko mar txan, gerturatzen diran guztieri Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako produktuak bertatik bertara ikusteko tartia eskintziaz gain, hórretxek erosteko aukeria be emongo detse eta, zelan ez, azokako produktu zein salmenta postu onenak saritzeko lehiaketia egingo dabe. Erosteko moduan ipiñiko dittuen artian barazkixak, frutak, eztixa, gaztaia, txakoliña, ogixa eta lorak egongo dira. Danera 66 ekoizle bilduko dittu aurtengo San Andres azokiak eta tartian Eibarko hiru basarri egongo dira: Gisasola eta Loixola, barazkixekin eta Sosola, ogixarekin. Hiru tokittan banatuta ipiñiko dittue postuak (Untzagan, Txaltxa Zelaixan eta Errebaleen), 1.500 metro karratuko azaleria beteko daben karpén azpitan babestuta.

Barazkixak saltzeko 20 postu egongo dira (4 Berriztik, 3 Mallabitik, 2 Markina-Xemeinetik, 2 Eibartik eta bana Elorrixo, Mundaka, Zamudio, Ispaster, Bergara, Sorraluze, Berango, Aramaio eta Gatikatik); frutak saltzen bik jardungo dabe (Antzuo-



66 ekoizle bilduko dittu guztira aurtengo San Andres Azokak. LEIRE ITURBE



la eta Gabiritik etorritta); eztixarekin Urretxutik etorrittako bi postu eta Portugaleteko eta Segurako bana ipiñiko dittue; gaztaiarekin 20 saltoki egongo dira (Aretxaba-

leta, Gabiria, Itziar-Deba, Uztegi, Olaberria, Inoso, Legazpi, Idiazabal, Abadiño, Zigoitia, Uhartarakil, Aia, Markina, Zumarraga, Antzuola, Arbizu, Tolosa, Olaeta, Urretxu eta Mallabitik); ogixarekin, barriz, 18 (Gujuli, Goiuria, Galdakao, Markina-Xemein, Eibarko Sosola, Orduñako, Elorri-xoko eta Llodioiko biña eta Larrabetzu, Etxebarria, Lezama, Mallabia, Orozko, Izurtza eta Gueñeseko bana); lorekin Usurbilgo saltzaille bat egongo da eta txakoliñarekin Lezamatik etorrittako beste bat.

Animalixak Errebaleen

Azokan salgai jarriko diran produktuez gain, urtero lege, abereen erakusketia be egingo da, Debemenen ekimenez. Eta azokan parte hartzera animatzen diran eibartarrak oindiok be gitxi izan da, abere erakusketara eruango dittuen animali guzti-guztiak Eibarko basarrietatik eruandakua izango dira: 17 behi, bi idi, 11 zaldi, 4 asto, 20 ardi, 10 ahuntz, txarri bat, hegazti-xak eta untxi-xak ikusteko aukeria egongo da eta animalixak erakutsiko dittuen basarri-xak Sumendixa Goikua, Loixola, Agarre, Amazabalegi, Arimendi Goikua, Mandiola Gainequia, Aritxulueta, Zumaran, Untzeta eta Sumendixa dira.

METALEZKO ERAIKUNTZAK ETA ALUMINIOZKO ETA PVC-KO AROZTEGIA



Aluminio, PVC eta aluminio-egurrezko leihoen fabrikazioa. Lan mota guztiak burdin eta altzairu herdoilgaitzetan.

TAILERRA: Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoa: 943 121 367 Faxa: 943 120 150

ERAKUSKETA: Urkizu, 26 - behea
Tfnoa. eta Faxa: 943 127 401

info@ulmar.net - www.ulmar.net

Beti
Berria
Bezala

PURRITX,
PORROT orain
et MaRiMotots "Amalur"
LAN BERRIAREKIN

abenduak 12
ZAPATUA
16.30 eta 19.00

abenduak 13
DOMEKA
16.00 eta 18.30

SARRERAK SALGAI (8'00 euro)
El Tío Palancas (JUAN GISASOLA),
Eneritz argazkidenda (URKIZU) eta
GOZOKI (BIDEBARRIETA ETA SOSTOATARRIN)

Jaixak Herrixak Herrixandako... sanandresetan be

San Andres jaixaren inguruko programia preparau dabe Jaixak Herrixak Herrixandako alkartekuak eta bixar ekingo detsez ekitaldixeri, 19:30xetan, Untzagatik urtenda kalejiran ibilliko dan elektrotxaragaren erritmuari jarraituta. Eta gabian, 23:30xetan Joxe Replay eta Mugi Panderoa taldiak nahi daben guztiendako kontzertua emongo dabe, Untzagako karpan. Domekan 12:30xetan trikopoteuan urtengo dira Untzagatik eta taberna batetik bestera ibilliko dira, 14:00xetan Txaltxa Zelaixan egingo dan bazkarira juateko ordua ailegau arte (txartelak Beleko, Depor eta Buenos Aires tabernetan salgai, 9 eurotan). Eta bazkalostia girotzeko, 16:00etatik aurrera erromerixia eta fandango eta arin-arin "free style" txapelketia preparau dittue.

Hamabi txaranga Ustekaberen 15 urtiak ospatzen

Ustekabe fanfarreak 15 urte betetzen dittuala ospatzeko, gaurko eta bixarko ekitaldi berezixak antolatu dittue: gaur 22:00etatik aurrera The Rockos, Los Del Gas, Besteik-pe eta Skapital City taldiak kontzertua emongo dabe, Untzagan, zapatuko ospakizun nagusixari bidia zabaltzeko. Izan be, bixarko egunari "Txaranga Eguna" deittu detse eta, urtemugaren aitzakixarekin, oin arte herrixan ikusi ez dan txarangen topaketia preparau dabe, 12 txaranga alkartuta: Ustekabe (Eibar), Mauxitxa (Elgoibar), Irulitxa (Ermua), Gazte (Iruñea), Urolatarrak (Zumarraga), The Joselontxo's (Donostia), Pasai (Pasaia), Kolean (Tolosa), Peña Poteo (Irun), Korapilo (Gasteiz), Gureztat (Portugalete) eta Turrutxiki (Ezkirotz). Arratsaldeko 17:30xetatik aurrera talde bakotxak herriko auzo bat girotuko dau eta, 19:00ak aldiandak Urkizun bat egin eta jarraixan, 19:30xetan, 180 musikua Untzagara igoko dira, kalejiran, danak alkarrekin jotzen, 20:00etan Untzagan fanfarrea eginda jaixa agurtzeko. Horrekin batera, 15 urtietako ibilbidia argazki eta testuekin (danak eibarreraz idatzita) errepasua emoten detsan aldizkarixa emon dabe argittara etxe guztietara duan banatzeko.



Txistorriari eskindutako jaixa

Eibarko Txirrindulari Elkartekuak hamairugarrenez antolatu daben Txistorraren Eguna bixar ospatuko da Untzagan. Kilometro bateko luzeeria dakan txistorria pintxotan preparau eta salgai ipiñiko dabe Untzagako karpan. Jendia jaira batzeko deialdixa 11:30xak aldera egitteko asmua dake eta, bestiak beste, basarri eta landa munduari omenaldixa egingo detse, txotxerako bidian egingo daben kalejira txalaparta, alboka eta adarraren soifuekin lagunduta. Txotxa, barriz, 12:00xetan egingo dabe Suministros Industriales Goritz-ekuak eta Ander Romarate igerilarixak eta hortik aurrera gaberaño luzatuko dan jaixa hasiko da. Pintxuak eta edarixak saltziaz gain, egun osuan zihar kirol erakustaldixak, musikia, jokuak eta bestelako jarduerak egingo dira txistorraren inguruko jaixa girotzeko eta Valentziaga Oroitzarreko VI. Argazki Lehiaketako irabazlieri sarixak be bixarko jaialdixan banatuko detsez, 12:30xetan. Bazkaltzera juateko ordua ailegau arte (15:00ak arte) egongo da jaixarekin bat egitteko aukeria. Eta atsedendaldixa amaittuta, 18:30xetan ekingo detse atzera be pintxuak eta edarixak saltziaz eta jaixa agurtzeko, egunian zihar saldutako erriren zozketia egingo dabe 21:30xak aldera, danera 5.000 euroko balixua daken premi-xuak banatzeko.

EIBARBUS
autobusak

- ❑ Bertoko eta nazioarteko **BIDAIK**
- ❑ Enpresa eta eskola **GARRAIOK**
- ❑ **TXANGOAK**

Bulegoa: 943 20 17 33
Mobila: 629 48 15 92
Faxa: 943 70 16 20

Isasi 20 - behea
eibarbus@eibarbus.com
www.eibarbus.com

Bidebarrieta, 5 www.capiestetica.es Tel. 943 201 547

CAPI 

Aurpegi tratamenduak



- Lifting japonesa
- Radiofrequentzia
- Mantxak
- Mesoterapia birtuala
- BETILE LUZAPENAK**
- BETILEETARAKO LIFTINGA**
- GEL ATZAZKALAK**
- IA BETIRAKO MANIKURA**

LASER DEPILAZIOA

Hanka osoak + Izterrondoak: 90€

30€

zona bakoitza

Eibartik 50 kilometrora bizi eta herriminak janda daude Gasteizen bizi diren eibartar asko. Eta urtero San Andres egunaz baliatzen dira sentimendu horri irteera eman eta gure patrioiaren jaia hemen egongo balira moduan ospatzeko. Aurten, gainera, atzoko eguna aprobetxatu zuten Eibarko aurrea hartu eta lotura hori nabarmentzeko, goizak kalean harrapatzeraino.

Gasteizen Sanandresak inon baino lehenago



1999an ospatu zuten Sanandresak lehen aldiz Gasteizen bizi diren eibartarrek. Aurtengoa, beraz, 17. edizioa izan da: guk baino lehenago, atzoko pintxo-poteoa aprobetxatuz, ospatu baitzuten Eibarko patrioiaren jaia gure 'gasteiztarrek'. "Beti ospatzen dugu eguenetan. Berdin zaigu hurrengo egunean lan egin beharra, horretarako eta gehiagorako prest gaude-eta", dio Aitor Buendia kazetariak, ekitaldiaren antolatzaileetakoak. Berak gogoratu digunez, "Juan Mari Aretxabaleta izan zen aitzindaria, Dato kaleko Euskadiko Kutxan lan egiten duenez, hainbat eibartar ezagutzen zituelako. Ez hori bakarrik: egunkarian egin zuen deialdia, ipinitako iragarkia bere poltsikotik ordainduta". Lehenengo deialdira hogeitatu lagun aurkeztu ziren Independentzia kaleko Sokoa jatetxera. Orduko hartan ere ez zuen kalerik egin Eibar FT-ren banderak, urterik urte eurekin izan dena.

Hurrengo urteetan hainbat erakunde ere hasi ziren parte hartzen. "Eibarko eta Gasteizko Udalen opariak hartzen hasi ginen eta, baita, Eibar FT-ren eta J.D. Arraterenak ere.

Desagertutako eskubaloi talde horrek ere kolaboratzen zuen gurekin. Opari horiek afaldu ondoren zozketatzen genituen". Buendiak ez du ahaztu nahi gaur egun gurekin ez dagoen Antxon Beristain grabatzailearen lana: "Berak sortu zuen, eskuz eginda, Eibarko eta Gasteizko ikurrez baliatuz, ezkutu original bat".

Habanerak lagun

Azken urteotan Conde de Alava jatetxeak hartu du Sokoaren erreleboa. Hala ere, eguneko egitaraua antzerakoa izaten da: "Aurretik txikiteoa egiten dugu, Txiki tabernan elkartu eta gero, 'alegre biribilketan' jatetxeraino joateko. Hori bai, guk pintxo-potea kalitatezko ardoarengatik aldatzen dugu". Aurten 48 lagun izan dira izena eman dutenak, eta "goizeko ordu txikiak arte habanerak kantatzen jarduteko Gasteizko erdi aldetik". Duo Amnecer izango zuten atzo ere lagun lan horretarako, Josu Arizagak eta Eskozia La Bravako Kike Gisasolak ere ondo dakite giroa alaitzen. "Aurretik Vicentín Ramirez ere izan dugu gurekin abesten", dio Buendiak.

Lehen aipatutako banderekin batera, bufandak ere ikusten dira horrelako gau bere-

zian eta "Arrateko Ama ere gurekin izaten dugu, guztiok identifikatzen garelako irudi horrekin, gure gaintik dagoelako". Aurtengo beritasuna Juan Luis Santamariaren Lambretta da: "20:00etan Santxo Jakituna kalean bildu eta gero, Juan Luis Santamaria 'Santak' berriztutako Lambrettak lagunduko digu kalejiran", Aitorren esanetan.

Badituzte, Gasteizko eibartar hauek, beste egitasmo batzuk ere. "Eibar-Gasteiz izeneko peña sortzeko gogoia dugu, Eibar FT animatzeko. XX. mendeko 60. eta 70. hamarkadetan jende asko etorri zen Eibartik Gasteizera, exodo industrialarekin batera. Eta, lotura horrez gain, hor dugu, amankomunean, San Andres gurutzea ere: bion -Eibarko eta Gasteizko- ezkutuetan baitago presente", dio kazetariak.

Hala ere, egun horretatik kanpo ez dira askotan elkartzen Gasteizko eibartarrak: "Pena da, baina hiletetan bakarrik izaten da gehienetan, Eibar FT-ren partidua kenduta. Baina sare sozialak-eta erabiltzen ditugu gure artean berriak partekatuzko". Gau horretakoak konpontzen du distantzia hori; horregatik izaten da bertan Aitor Ibarguren, Gironatik etorrita (Giro-Ona peñako sortzailea). Edo Juaninax Valenciaga, "Eibartik gau horretara etortzen dena". Ahaztu barik dobletea egiten dutenak: "Gasteizen eta Eibarren ospatu!".



JAIOBERRI ETA HAUR
TXIKIENTZAKO ARROPA
ETA OSAGARRI DENDA

*abenduan
prezio bereziak
gabonetan*

Patukos

Errebal kalea, 1
(Aldapatxo) -EIBAR-
Akilino Arriola, 6 -SOPELA-

<http://patukos.net> <http://facebook.com/patukosbebe> Tel: 943-259281

Bezero Guztiendako San Andres ZORiontsuak!

**A
R
K
I
Z
U
E**

Gastro-pub
mm

Isasi, 2
TEL. 943 70 26 91

GURIDI
RUGBY

GORA SANANDRESAK!!!

SOKOA
EIBAR-ONDARBU

birjiñape, 1 behea
tel. 943 20 71 00

SOKOA

BALKOI

o
n
d
o
p
a
s
a
u

s
a
n
a
n
d
r
e
s
a
k

BAR

bokatak, kazuelitak,
tapak eta pintxoak

URKIZU, 11

CAFETERIA
BAISI

Urkizu II, Behea - 637 440 511

Gora Sanandresak!

T. Etxebarria, 21
Tel. 943 20 70 07

*Pintxoak
eta
kafea*

ONGI-ETORRI

Zubi-Gain URKIZUKO
DORREETAN

Urkizu, 11-behea Tfnoa. 943-254060


*Ogitarteko, kazuelita, tapa
eta pintxo berezietan
ESPEZIALIZATUAK*

AMETSA
Toribio Etxebarrian

Giro ezinhobea, musika bikaina...

SAN ANDRES AHAZTEZINAK!!!

Bere kazetaritza jarduera dela eta, Alberto Echaluze eibartarrak harreman estua izan du beti Eibarko Bakailaoaren Kofradiarekin. Hori dela eta, Bar Valle eta Eibar Rugby taldearekin batera, Ohorezko Kofradea izendatuko dute San Andres bezperan izango den Bakailaoaren XXII. Kapituloan. Eibarren Diario Vasco-ko kazetaria izateagatik ezaguna da Alberto Echaluze, baina, horretaz gain, 25 urte daramatza itsasoan eta arrantzan espezializatua dagoen "Europa Azul" aldizkaria argitaratzen. Europa Azul-ek leku garrantzitsua betetzen du sektore honetako argitalpenen artean, eta gehienbat enpresari, armadore, ikertzaile, erakunde eta merkaturatzeaz arduratzen direnei zuzenduta dago.



ALBERTO ECHALUCE (EUROPA AZUL-eko zuzendaria)

"Arrantzale harrapakariaren irudia ez dator bat gaur egungo errealitatearekin"

– 25 urte bete ditu Europa Azul aldizkariak. Nola sortu zen?

Nire lehenengo lana kazetaritzan Diario Vasco-ko Ondarroako korrenpentsalioan izan zen 1988. urtean. Han itsasoarekin eta arrantzarekin lotutako albisteak ematen hasi nintzen. Berehalakoa ikusi nuen gaia asko gustatzen zitzaidala. Garai hartan arazo asko zegoen: hegaluzearen gerra, liskarrak Frantziako itsasontziekin... Konfliktu horietan sartzen hasi nintzen, iturri desberdinak ezagutzen eta Vigoko "Industrias pesqueras" aldizkariarekin kolaboratzen hasi nintzen. Hurrengo urtean Eibarko Diario Vasco-ko korrenpentsalioan hasi nintzen, baina ez nuen arrantzaren kontua laga. Konturatu nintzen Euskadin itsasoarekin lotutako informazio asko sortzen zela eta aldizkaria sortzera animatu nintzen. Urteekin autonomia-erkidego desberdinetako kolaboratzaileen sarea sortzen joan gara (Galizia, Andaluzia, Katalunya, Kantabria...). Urtean 6 aldizkari kaleratzen ditugu, 2.000 aleko tiradarekin; 100 orrialde inguru izaten ditu ale bakoitzak, guztia koloretan eta diseinu zainduarekin. Nahiz eta arrisku handiko sektore

bat dela jakin, urte guzti hauetan aurrera egitea lortu dugu, beti ere publizitatearen menpe (Julio Ruiz de Velasco nire bazkidea arduratzen da arlo horretaz). Azken urteetan europa-azul.es webgunea indartu dugu eta mugimendu handia izatea lortu dugu.

– Nola joan da egokitzen sektorea azkeneko urteetan?

Arrantza sektore zaila da, baina oso garrantzitsua: Espainian biztanleko 40 kilo kontsumitzen dira urtean, eta munduko arrantza-inportatzaile nagusien artean gaude. Europar Batasunean sartu ginetik sektorea desmantelatzen joan da. Gure aurretik zeudenei baino gehiago eskatu zaigu. Egonkortasun erlatiboaren printzipioa dela eta, esate baterako Frantziak edo Ingalaterrak baino espezie gutxiago arrantzatzen dezakegu. Europa Espainiaren kontra legistlatzen saiatu da. Ondorioz, adibidez Ondarroan, 114 itsasontzi zeuden orain dela 35 urte, eta orain 17 bakarrik daude. Gainera, azkeneko urteetan izan den korronte ekologista izugarriak betekizun pila bat ekarri ditu, eta guzti horrek arrantza munduaren egokitzapena ekarri du. Arrantzale

harrapakariaren irudia ez dator bat gaur egungo errealitatearekin. Jendeak arautegia eta portaera-kodeak errespetatzen ditu eta intsasontzian inbertitu dutenek edo-ta flota berriztu dutenek bizirautea lortu dute. Gaur egun, esate baterako, atun-flota gutziz berritua daukagu.

– Nolako etorkizuna ikusten diozu Euskal Herriko arrantzari?

Etorkizun handia ikusten diot sektoreari. Flota murriztua baina bideragarria gelditu da (baxurako 159 ontzi, 18 alturakoak, 2 bakailontzi eta 22 atunontzi). Espezieen populazioak hobetuz dihoaz. Zientzilariek gero eta baliabide gehiago daukate espezieak nola dauden egiaztatzeko. Antxoia eta legatza errekupeatzeko planak egon dira eta berriro gora egin dute. Atuna erregulatzen ari da eta aukera handiak emango ditu. Aurtun hegaluzearen eta antxoaren kanpainak oso ona izan dira eta urrian sardiña kiloa euro batean saldu zen lonjetan. Atun-industria eta kontserberak ere oso garrantzitsuak dira. Hemengo enpresa askok Frantziar bazkiak bilatu dituzte kuota handiagoa izateko. Aukera handiak ikusten ditut benetan.

MUGIKA

Baimendutako Harategia

Gure Kalitatea

Giokela

Urkizu, 18
943120194

HARATEGIA

ONDO PASA Sanandresak!!!

ESPEZIALITATEAK: *Odolkiak / Plater prestatuak*



Etxeak zure esku

Inmobiliarien gehigarria

Eibarren gaur egun daukagun etxebizitzaren eskaintza oso zabala da. Bigarren eskuko etxebizitza zein berria nahi izanez gero, herrian ditugun inbiliarrietara jotzea besterik ez daukagu. Horietan diharduten profesionalak behar dugun informazio guztia emango digute: etxebizitzaren kokapena, orientazioa, metro karratuak, ezaugarriak, zein egoeratan dagoen, prezioa...

Eskuartean daukagun gehigarri hau lagungarri izango zaizuela uste dugu. Eta informazio gehiago nahi izanez gero, konpromisorik gabe joan zaitezke sektore honetako adituengana: zeuen premiei erantzuteko prest egongo dira.



www.aukera-inmobiliaria.com
943 12 13 95 Bidebarrieta 29




EIBAR. Bidebarrieta Ref. N00601

Berriztua, igogailua eta kalefakzioa.
3 logela eta 2 komun.
210.000 €



EIBAR. Aldatze Ref. N869

3 logela (80m²), guztiz berriztua.
Oso eguzkitsua eta bista ederrak.
155.000 €



EIBAR. Bidebarrieta Ref. N829

104 m². Kalefakzioa. Trastelekua.
100.000 €




EIBAR. Jardñeta Ref. N857

114 m²-ko duplexa. 4 logela eta
3 komun. 2003. urtekoa. Trastelekua.
Garagea aukeran. 231.000 €



EIBAR. Amaña Ref. N822

3 logela. Igogailua. Trastelekua
etxebizitza barruan.
59.000 €



DEBA. Hondartza Ref. N805

Bista ezinhobeak. 2 logela. Altua,
igogailu eta trastelekua.
220.000 €



T. Etxebarria Galdetu

90m². 4 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta komuna. Trasteroa. Igogailua eta kalefakzioa.



Isasi 110.000 €

3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailu berria.



Errebal 195.000 €

95 m². 4 logela. Konpontzeko. 2 trastero. Barrera arkitektonikorik gabe.



Sostoa 140.000 €

2 logela, egongela, sukaldea eta bainua. Kalefakzioa. Trasteroa. Igogailua.



San Kristobal 90.000 €

2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Egoera onean. Trasteroarekin.




Isasi 150.000 €

2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua eta kalefakzioa. Egoera onean.



Ipuruako dorrea 242.000 €

3 logela, egongela, sukaldea eta bi komun. Egoera onean.



Egon Gain 150.000 €

Gela bateko apartamentua, egongela, sukaldea eta bainua. Ezinhobea. Barrera arkitektonikorik gabe.




T. Etxebarria Galdetu

146 m². 5 logela, egongela, sukaldea, despensa eta bi komun. Pisu altua. Egoera onean. Trasteroarekin.

GARAJEAK

Salmentan eta alokairuan. Ego Gain, San Juan, Amaña, Ipurua, Bista Eder...



Santa Iñes 110.000 €

2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua eta trasteroa.



Ifar Kale 137.000 €

2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua.



Barrena 180.000 €

2 logela, egongela, sukalde-jangela eta komuna. Guztiz erreformatua. Igogailu eta kalefakzioa.



Eiguren 160.000 €

2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua eta kalefakzioa. Garaiea aukeran.



Mekola Galdetu

110 m². 5 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta komuna. Konpontzeko.




Milaflores 70.000 €

2 logela, egongela, sukaldea eta komuna.



T. Anitua 115.000 €

3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kanpora ematen du.



Barakaldo 155.000 €

2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kanpora. Pisu altua. Egoera onean. Igogailua.



Mekola 165.000 €

66 m². 3 logela. Egoera onean. Kalefakzioa. 2 trastero.



Toribio Etxebarria, 1
943 20 03 58
fincas@euki.com
www.euki.com

- **Gestio inmobiliarioa:** alokairuak, erosketak, salmentak, tasazioak, kontratuak...
- **Galdetu zure etxebizitzaren Finantziatorako Bidea:** mailegu hipotekarioak, pertsonalak...
- **Informazio Pertsonalizatua**



Toribio etxebarria Galdetu
 Pisu altua. 145 m². 4 logela, 2 komun eta sukaldea. Igogailua eta kalefakzioa. Ganbara (2 etxebizitza egiteko aukera).



Muzategi Galdetu
 Eraikuntza berria. Pisu altua, eguzkitsua. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukalde zoragarria. Garajea eta trasteroa aukeran.



Toribio Etxebarria Galdetu
 Eraikin berria. Pisu altua. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukalde ezinhobe.



Bidebarrieta 179.000 €
 Pisu altua. Konpontzeko. Igogailua.



Arane 230.000 € negoziagarriak
 Erdi-berria, 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Guztiz jantzia. 2 garaje prezioaren barne.



Legarre
 Eraikin berria. Garajeak alokairuan, salmentan eta alokairuan erosteko aukerarekin.



Mekola Galdetu
 150 m² eta 180 m² bitarteko etxebizitzak. Garaje bikoitzarekin eta ganbara ederrarekin.



Romualdo Galdos 130.000 €
 Azken pisua. Igogailua eta kalefakzioa. 3 logela balkoiekin eta ganbara.



Ubitxa 120.000 €tik aurrera
 2 eta 3 logelako etxebizitzak. Igogailua eta kalefakzioa.



Urkizuko dorreak Galdetu
 4 logela: 220.000 €
 3 logela: 145.000 €



Santa Ines 167.000 €
 Pisu altua, oso eguzkitsua. Ezinhobe. Igogailua eta kalefakzioa.



Ipuruako dorreak 230.000 €tik aurrera
 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta balkoi ederra. Garajea eta trasteroa.




Wenceslao Orbea 122.000 €
 Ezinhobe. Gazteentzako aproposa.



Untzaga 179.000 €
 Estreintzeko. 3 logela, sukalde-jangela guztiz jantzia, bainugela eta komun. Armairu enpotratuak.



San Juan 206.000 €
 Berriztua. 3 logela. 2 komun, egongela eta sukaldea. Igogailua eta kalefakzioa.



Errekatxu 92.000 €
 Azken pisua, terrazarekin. Gazteentzako aproposa. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa.



Blas Etxebarria 200.000 €
 Pisu altua. 2 logela, jantzigela, komuna, sukaldea, eta egongela. Ganbarekin.



Juan Antonio Moguel 83.000 €
 Aukera paregabea. Balkoi handiarekin.



Romualdo Galdos 195.000 €
 Ezinhobe. 3 logela, egongela, komuna, bainugela eta sukaldea. Igogailua kaleraino eta ganbara.



Julian Etxebarria 240.000 €
 4 logela, egongela, sukaldea, bainugela, komuna eta 15 metrotako ganbara. Igogailua kaleraino.



Sautxi 156.000 €
 Ezinhobe. 2 eta 3 logelako etxebizitzak. Garaje eta trasteroarekin.




Mutiola 150.000 €
 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea eta komuna. Igogailua eta kalefakzioa.



Miguel de Aginaga 137.000 €
 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Ganbara eta igogailuarekin.



Jardiñeta 92.000 €
 Gazteentzako aproposa. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kalefakzioa.



Isasi 175.000 €
 Pisu altua. Bista ederrak, eguzkitsua. 3 logela. Igogailua eta kalefakzioa.

agencia
inmobiliaria
Juaristi

A.P.I.: Rosa Juaristi

www.inmobiliariajuaristi.com



Bista Eder. 135.000 €



Urkizuko dorreak. 170.000 €



J.A.Mogel. 115.000 €



Karmen. 90.000 €

Arragueta, 2 bis B-behea 943 20 08 60

**INMOBILIARIA ESTUDIO
PS XXI**



Higiezin-zerbitzuak
eta Barne arkitektura

Tel./Faxa. 943 74 23 06

20870 ELGOIBAR

www.inmobiliariapsxxi.com

**HIGIEZINAK
ARREGI
INMOBILIARIA**

Errebal, 20

Tel./Faxa. 943 203 333

Mobila. 656 766 344

www.inmoarregi.com



**Etxeak
zure esku**

Inmobiliarien gehigarria

Etxebizitza bat erostea erabaki garrantzitsua eta konplexua da, diru kopuru handia inbertitu behar delako eta tramitazio luzea eskatzen duelako. Eraikitzaileak, sustatzaileak edo etxebizitzak enpresa edo lanbide-jarduera baten barruan eskaintzen dituenak honako informazio hau jarri behar du jendearen eskura (beraz, kontuan izan behar dugu partikularren arteko salerosketetan ez dela nahitaezkoa izango informazio hori ematea):

Identifikazio-datuak:

- Saltzailearen izena edo enpresa-izena, helbidea, eta, hala badagokio, Merkataritza Erregistroko inskripzioaren datuak.
- Etxebizitza lehen aldiz eskualdatzen bada, arkitektoaren izena eta helbidea, eta eraikitzailearen izena edo enpresa-izena.

Eraikinaren ezaugarriak:

- Etxearen kokapenaren plano orokorra eta etxebizitzaren beraren planoak.
- Etxebizitzaren deskribapena. Azalera erabilgarria adieraziko da eta orokorrean deskribatuko dira etxebizitza dagoen eraikina, haren eremu komunak eta zerbitzu osagarriak.
- Eraikina eta etxebizitza eraikitzeke erabilitako materialen eta eraikuntza-sistemen ezaugarriak: barne-estaldurak, egurrak, kristalak, isolatzaile termikoak eta akustikoak, etab.
- Leihoen neurriak, eta argiztapen eta aireztapen azalerak.
- Elektrizitate-, ur- eta saneamendu-sareen deskribapena eta planoak, eta, hala badagokio, gas-sarearenak. Instalazio komunaren deskribapena, eta, hala badagokio, ur beroaren eta berogailuaren kontagailuena.
- Instalazioak erabiltzeko eta horien mantentze-lanak egiteko jarraibideak adierazi beharko dira, jarduera edo ezagutza bereziren bat eskatzen badute. Larrialdietan etxea uzteko jarraitu beharreko jarraibideak ere adierazi beharko dira.
- Eraikinean jarritako igogailu eta karga-jasogailuen ezaugarriak eta horien segurtasun-neurriak.
- Suteen aurkako neurriak eta eraikinak dituen suteen aurkako ekipoen kokapena.

**Hurrengo
gehigarrian
agertzeko:**

943 20 67 76

publizitatea@etakifto.eus



SAUTXI 179.000 €

Duplex zoragarria garajearekin, bi logela, egongela handia, sukalde-jangela eta bi komun. Igogailua eta kalefakzioa. Berriztua eta jantzita. Trasteroa aukeran. 65 m² beheko solairuan eta 15 m² goikoan



LEGARRE 170.000 €

3 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua eta kalefakzioa. Guztiz berriztua eta jantzita.



ARMAGIN 190.000 €

3 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia dauka. Igogailua eta kalefakzioa. Guztiz erreformatua eta jantzita.



2 gela 121.124€tik aurrera

**PREZIOAREN BARNE
GARAJEAK ETA
TRASTEROAK**

**BABES OFIZIALEKO AZKEN
ETXEBIZITZAK URKIZU
INGURUAN**



EGIGURENTARREN 230.000 €

3 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea eta bi komun. Igogailua eta kalefakzioa. 14 m²ko garajea. Jantzita.



BIDEBARRIETA 210.000 €

Aukera paregabea!!! 3 logela, egongela-jangela ederra, bi komun. Igogailua eta kalefakzioa. Leiho handiak. Guztiz berriztua eta jantzita bizitzera joateko. Zona ona.



ZULOAGATARREN 295.000 €

3 logelako etxebizitza ederra, egongela, sukaldea eta bi komun. Trastero oso handia leihoarekin. Igogailua eta kalefakzioa.

**TRASTERO BERRIAK
URKIZUKO DORREETAN
8.900€-TIK HASITA!!**

Urkizu 13, behean





LEGARRE 120.000 €

2 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea eta komuna. Terraza hegoalderuntz begira, oso eguzkitsua.



AMAÑA 152.000 €

Oso polita. 2 logela, egongela-jangela, sukaldea eta komuna. Kalefakzioa eta igogailua. Garajea eta trasteroarekin. Berriztua eta jantzita.



BISTA EDER 189.000 €

3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua eta kalefakzioa. Jantzita. Zona amankomunak guztiz berriztua.



URKIZU 215.000 €

2 logela. egongela, sukalde-jangela, bi komun, oso eguzkitsua eta bista ederrak. Guztiz berriztua eta jantzita.



URKI BEHEA 176.000 €

Etxebizitza oso polita, 3 logela, egongela-sukalde-jangela eta komuna. Igogailua eta kalefakzioa. Guztiz berriztua eta jantzita. Terraza ederra, oso eguzkitsua.



URKIZU 285.000 €

Duplex oso polita. 4 logela, egongela handia, sukaldea eta 3 komun. Igogailua eta kalefakzioa. Balkoi eguzkitsua. Jantzita. Garajea aukeran.



T. ETXEBARRIA 189.000 €

1. pisua. AUKERA PAREGABEA. 100 m². Udaletxearen ondoan. Igogailua. Gas naturala leihoraino. Erreforma behar du. Aukera asko eskaintzen ditu. Ganbara.



MUTILOA 160.000 €

Oso polita. 2 logela, egongela-jangela, sukaldea eta komuna. Kalefakzioa eta igogailua. Guztiz berriztua eta jantzita.



JUAN GISASOLA 210.000 €

Oso polita. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua eta kalefakzioa. Guztiz konponduta eta jantzita.



ERREBAL 180.000 €

Erreformatzeko, aukera handiak ematen ditu. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua. 14 m²ko terraza. Zona ona.

Herriko gimnastak Espainiako bigarrenak Zaragozan

Ipuruako kadete mailako taldeak zilarra lortu zuen asteburuan Zaragozan jokatu zen Espainiako txapelketan. Malen Txurrukak, Elene Varelak, Nahia Arguizek, Elena Sudupek eta Alaitz Aranbarrik osatutako boskoteak atsedean hartu barik jardun zuen bost pilotekin Siglo XXI pabilioian bi minutu eta erdi iraun zuen ariketan. Eibartarrak Tolosa Klub txapelduaren rengandik 0'355era amaitu zuten, Kanarietako Orisela hirugarrenari 1'425 kenduta. Emai-

tza bikaina izan da eibartarrentzat, Ipuruak ez zelako taldekako Espainiako txapelketa bateko podiumera igotzen 2008tik. Kadeteek maila emango zutela jakinda ere, aipatzekoa da alebilenak 66 parte hartzaileen artean lortutako 10. postua. Ainhoa Bizkarra, Izaro Altuna, Maddi Teran, June Heredero, Lur Aranburu, Indira del Pino eta Enara Bilbaoren debutaren eguna izan zen estatuko txapelketa batean, eta aurrez esperotakoa gainditu zuten.



Ipuruako gimnastek ariketetan ematen duten mailaren parekoa da euren familiek eskaintzen dieten laguntza eta kemena. Zorionak!

Astelenak itxuraldatuta zabalduko ditu ateak San Andres egunean

Lau hilabetetan obretan jardun eta gero, 180.000 euroko inbertsioarekin, Isasi kaleko gure Katedralak ateak zabalduko dizkio berriro pilota profesionalari. Kantxara eta gradaraino doan igogailua eta larritasun egoerarako irteera berriak dira aldaketa nabarmenenak, gradako komunetan egindako berriztatzeekin batera. Aspek ahalegin berezia egin du San Andres eguneko jaialdi bikainena osatzeko; hori dela-eta, lehen partidua ere goi mailakoa izango da. Hor Xala-Irusta eta Retegi Bi-Merino bikoteek neurtuko dituzte indarrak. Jarraian, karteldegiko partidu nagusian, Altuna III.ak eta Irribarriak, Eibarko enpresan etorkizun handiena aurreikusten zaien aurrelari gazteek, Barriola eta Rezustaren laguntza izango dute, hurrenez hurren. Azken partiduan, bestalde, Aritz Lasak eta Erostarbek Gorka eta Urruzolaren aurka jardungo dute, nor baino nor. Sarrerak gordetzeko 661-259009 telefono zenbakira deitu daiteke.



Policlinica Gipuzkoa aizkora torneoaren 4. edizioaren aurrean


Errebalek hartuko du, ohikoa denez, San Andres eguneko aizkolarien arteko Policlinica Gipuzkoa Sariaren laugarren edizioa. Eguerdiko 12:00etan hasiko den jaialdian bi lehia izango dira jokoan,

hiru bikote helduk eta gazteen beste bik eskainiko dituztenak. Eloy Corcherok (22 urte), Etxeberriak (20), Jauregik (19) eta Hodei Ezpeletak (16 urte ditu Bihurriren semeak) osatuko dute gazteen



Hodei, Ernesto eta Txikon berriro izango dira San Andres torneoan.

laukotea. Aizkolarari helduagoak Mujika, Etxeberria, Zubizarreta eta Odriozola izango dira, Alex Txikon eta Ernesto Ezpeleta "Bihurriekin" batera. Azken honek Bizkaiko 2. mailako txapelketa irabazi zuen berriro Ermuan, hilaren 14an, San Martin Azokaren barruan beste zazpi aizkolariren aurka egindako lehian. Gogotsu izango dugu astelehenean ere bere onena emateko, "kilo batzuk galduta, baina sasoian".



Julita Valenciaga Lasuen I. urteurrena (2014-XII-3)

"Amama: zure bizipoza, kemena, elkartsuna, gizatasuna eta Eibar eta eibartarrekiko maitasuna gure ardatz bilakatu ditugu"

MUSUAK.

Eibarrek itxaropentsu hartuko du Real Madril domekan

BBVA Ligaren ia herena jokatu denean, eibartarrek lau puntu-ra dute Real Madril handia eta alde hori murrizteko asmoarekin ekingo diote domeka arratsaldean (16:00etan hasita) galaktikoz osatutako taldearen aurkako partiduari. Madrildarrak ez datoz sasoi onenean Bartzelonarekin galdu eta gero eta Mendilibarren mutilek hori baliatu nahiko dute beste ezuste bat eman eta sailkapeneko goialdean jarraitzeko.

Jakina, sarrerarik ez dago lehia hori ikusteko; leporaino beteko da Ipurua, beraz. Astelehenean salgai jarri ziren 150 sarrerak eguerdirako agortu eta gero, iaz Real Madril aurkako partiduan izandako 5.859 ikusleen kopurua erraz gaindi-

tuko dute oraingoan. Eta baita iaz Cordobaren aurkako Ligako azken jardunaldian jarri zen marka ere: 6.065 ikusle.

Partiduen aurrekoa girotzeko, Eskozia La Brava peñakoek hainbat ekitaldi prestatu dituzte honako egitarauarekin: 11:00etan hamaiketako eskainiko dute Untzagako Jubilatutako Etxean eta eguerdiko 12:00etan armagin-poteoa hasiko dute. Bazkaldu eta gero, kafe-toreroa dastatzeko aukera izango da Gurbil tabernan, horrela animoz beterik Ipurua joan eta jokalariei harreara egiteko.

Del Bosque bihar

Eibar FT ez dago geldirik eta aste honetan ere baditu hain-



Ipuruako iazko partiduan Real Madril nagusitu zen; epaileak jokoz kanpo sartutako gola baimentzeak bidea erraztu zien "merengeei".

bat berri eskaintzeko: horrela, bihar eguerdian, 12:30ean, Ipar Tribuna inauguratuko dute eta, jarraian, Del Bosque Espainiako entrenatzaileak hitzaldia eskainiko du ipar-harmailaren ikasgeletan. Horrez gain, domekako partidua aprobetxatuz, ohorezko palkoa zabalduko dute Ipuruan, 80 lagun-

dako eraikitakoa. Gaur egungo aulkitxoak ere kendu egin dituzte eta maila berrirako egoikiagoak eraiki. Bestalde, Alex Aranzabal presidentek beste sari bat jaso zuen astelehenean: oraingo Kirol Zuzenbideko Euskal Elkartearena, klubaren kudeaketa ekonomikoa sarritzeko.

Deportiboa atletismoko probintziako klub onena

Zapatuan Ficoban egindako Gipuzkoako Atletismo Galaren X. edizioan, Eibarko Klub Deportiboak aurtengo talde onenaren saria jaso zuen. Dominez jantzitako ibilbide oparoa egin duen taldea, baina, ez zen gure ordezkari bakarra izan sari banaketa horretan. Munduko txapelketa batean parte hartzeagatik plaka bat jaso zuten bost kirolarik, euren artean Asier Cuevasek (parte hartzeaz gain, munduko azpitxapelduna dugu eibartarra 100 kilometroko proban) eta, horrez gain, probintziako marka berria edo errekorra egiteagatik Ezkurra jaso zutenen beste bosten artean Tomas Vouilloz eibartarra izan zen (junior mailako dekatloian egindako markarengatik).



Alberdi, Cuevas eta Garitano Gipuzkoa Kirolak-erako hautagai

Abenduaren 17an Tabakalera ingongo den Gipuzkoako Kirol Galari begira, lurraldeko kirol federazioek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzua-rekin lankidetzan, hautagaiak proposatu dituzte eta horien artean daude Markel Alberdi igerilaria (Espainiako marka egin du 100 metro librean), Asier Cuevas atleta (100 kilometroko munduko txapeldunordea) eta Gaizka Garitano (Eibar FT-ko entrenatzailea izandakoa). Sari horietarako botoa eman nahi izanez gero, aukera du jendeak abenduaren 4ra arte gipuzkoakirolak.eus helbidera jota. Partehartzaileen artean sarrerak zozketatuko dira Real Sociedad eta GBC Gipuzkoa Basket taldeen partidetara joateko.



JOKIN ETA ESPE
35. urteurrena



ROBERTO PEREZ
45. urteurrena



Ez zaituztegu ahaztuko

21 urteko Marta Garinek eta 18ko Marina Aperribayk Zuzenbidea eta Objektuen Garapenerako Ingeniaritza ikasten dute, baina biek jotzen dute saxofoia. Musika errutinatik ihes egiteko tresna bezala erabiltzen dute eta Ustekabe fanfarrean eta Eibarko Musika Bandan aritzen dira, nahiz eta musika eskolatik sortutako beste taldeetan ere parte hartu izan duten.

- Nola animatu zineten txaranga jotzera?

M.A.: Bi urte inguru da Ustekaben hasi ginela, batez ere bertan jotzen zuten lagunak genituelako eta eurek animatuta. Denok ikasi dugu Musika Eskolan eta Eibarko Musika Bandan ere elkarrekin jotzen genuen.

- Zer desberdintasun dago txaranga jo eta beste lekuetan jotzearen artean?

M.G.: Txaranga lagun taldea da. Bandan jotzeak ekar dezakeen seriotasuna alde batera laga eta dibertitzeko modua. Geure artean oso ondo moldatzen gara, giro ona dago, lagun mordoa egiten da, ...

- Txarangek eta jaiek eskutik joan behar dute derrigorrez?

M.A.: Gehienetan txaranga jai giroan dabilta, baina beste inguru batzuetan ere jo izan dugu, adibidez Frantzia, Condomeko banda jaialdian. Europako musika banden artean bigarren saria lortu genuen.

- Zailtasunik nabarmenenak zentzuzkoak dira?

M.A.: Hasieran zailtasun asko daude: abestiak ikastea, lotsak kentzea, ...

M.G.: Euria da zailtasun ia guztien eragilea, gure etsai nagusia. Inoiz ez da komenigarria, ez guretzat eta ezta instrumentuentzat ere. Guk biok txaranga eta bandan jotzeko bakarrik erabiltzen dugu gure saxofoia, baina badaude beste batzuk bi

instrumentu dituztenak: bat kalerako eta bestea "gehiago zaintzen" dutena.

- Nolako da txarangeroaren izaera naturala?

M.G.: Hitzaren zentzu onean, lotsagabeak gara. Beti denerako prest gaude, oso animaturik.

- Emakume ikuspegitik nolako egoera duzue txaranga?

M.A.: Orokorrean, gizon gehiago izaten da txaranga. Gu hori emakume gara orain, baina Ustekabetik 20tik gora emakume igaro dira. Hala ere, kopuru hori partaide guztien herena litzateke gutxi gorabehera.

M.G.: Gizartean eraikitako estereotipoei jarraituz, neskek ez dituzte haizeko instrumentuak edo perkusiozkoak aukeratzen; eta mutilek ere gutxiago jotzen dute biolina edo antzeko musika tresnen ikasketara. Gure ustez, hori izan daiteke desberdintasunaren arrazoietakoa bat. Dena dela, beti saiatzen gara emakumeen partaidetza sustatzen.

- Nola animatuko zenukete jende txaranga jotzera?

M.G.: Nire lagun-eremua asko handitu da. Adibidez, plan gabe geratzen banaiz, badakit txaranga norbaiti zerbait proposatuz gero, baiezkoa emango didala. Betiko lagunez gain, beste lagun talde bat sortzen duzu. Eta beste herrietako txaranga kideekin ere harremanak sortzen dira. Merezki du, dudarik gabe.



Marta Garin eta Marina Aperribay (USTEKABE)

"TXARANGA dibertitzeko beste modu bat da"



Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta
ENPRESETAKO OPARIAK

publi.resa@euskalnet.net

Catalana Occidente Aseguruak **150 años pensando en tu futuro**
Grupo asegurador

Emilio de los Toyos - C046815351532K Aseguru Agentea

- ERANTZUKIZUN ZIBILA
- AUTOAK
- BIZITZA ETA JUBILAZIOA
- OSASUN ASEURUA
- ISTRIPU BANAKAKO ETA KOLEKTIBOAK
- ARRISKU ANITZETARAKO: Familia-Etxebizitza, Dendak, Bulegoak, Eraikinak, Jabeen erkidegoak, Enpresa Txikiak eta Ertainak, Pymeak, Tailerrak.

emilio.toyos@catalanaoccidente.com

Eibarko Txikito, 8 -behea Tel. 943 200 908

Bezero Guztiendako San Andres ZORiontsuak!



TABERNA PIZZERIA BOKATERIA

Ego gain z/g 943 20 67 53

Taberna - Snack
POZKARI
*Argentinako espezialitateak,
pintxoak, ogitartekoak,
pizzak eta enpanadak*
J. Etxebarria 11 943 70 20 37
EIBAR

chalcha RESTAURANTE JATETXEA 943 20 11 26
www.restaurantechalcha.com

Ondo pasa San Andres jaietan!!!
eta ondo baino hobeto gurekin
Untzaga, San

HEZDOK ROCK
HEMENGO ETA HANGO GARAGARDO ARTISAUAK,
MUSIKA ETA GIRO JATORRA
Toribio Etxebarria 18, Eibar

Kili Kili
943 20 24 01 Egunero 07.00etan zabaltzen dugu
- Eguneko menua
- Gosariak
- Plater konbinatuak

UNBE TABERNA
× Pintxoak
× Bokatak
× Bazkariak
Balle Otaola 33 943 70 00 81
EGUNEROKO MENUA

GORA Sanandres!!
*Gosariak
Bokatal
Trinkete
Pintxoak
Tragoak*
EIBAR 1957
Ospatu gurekin!!
Errebal, 24 943 70 13 23

taberna Juan Gisasola, 10 taberna
taberna alberto OGITARTEKOAK SANDWICH-AK HANBURGESAK PINTXOAK TXANPIAK
Tel. 943 04 30 35 / 692 32 14 79

Eibarri buruzko kromo bilduma ikusgai

Gaur arratsaldean, 19:30ean inauratuko dute "Eibar 75 urte kromo bilduma" erakusketa Untzagako jubilatutako etxean. ORSAY 21 elkartearen eskutik ikusgai ipini duten erakusketak, besteak beste Mandiola Lagun Taldearen eta Eibar foball taldearen fundazioaren laguntza jaso du eta abenduaren 13ra arte egongo da bisitazeko aukera, astelehenetik barixakura bitartean 19:15etik 21:15era (eguztenetan izan ezik) eta asteburu eta jaiegunetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara. Erakusketak bi astetan Eibarrekin lotutako kromo bildumaz gozatzeko aukera emango die ikustera gerturazten diren guztiei. Erakusketaren harira, bestalde, kromo-albuma erosteko aukera egongo da bi egunetan (domekan, hilaren 29an eta abenduaren 12an), 10:00etatik 14:00etara jubilatutako etxearen parean ipiniko duten salmenta postuan. Jubilatutako etxeko arduradunek azaldu dutenez, erakusketak eta inprimaketak eragindako gastuei aurre egin eta gero geldituko diren onurak gairorik dauden umeei laguntzeko elkarte biren (ASPANOGI eta Pausoka) artean banatuko dituzte. Bestalde, Trio Basaur taldekoek girotuko duten afaria antolatu dute gaurko.



Jabier Muguruzarekin Harixa Emoten

Martitzenean Harixa Emoten euskerazko irakurketa-taldekoek hileroko saioa egingo dute Portalean, 19:00etan hasita. Abendurako aukeratutako liburua Jabier Muguruzaren "Hilen logika ezkutua" da eta irakurleek horri buruz idazlearekin berba egiteko aukera izango dute datorren asteko saioan.

Tripontziak bigarrenaz abian

Debegasak abenduaren 1etik 15era egingo den 'Tripontziak' ekimen gastronomikoaren bigarren edizioa jarri du martxan. Debabarreneko Klub Gastronomikoko kide diren eskualdeko 13 establezimenduk hartuko dute parte ekimenean, tartean jatetxe eta pintxo tabernak, nekazal turismo batek eta bi ekoizlek. Ekimenaren helburu nagusiak "tokiko eta sasoiko produktuen kontsumoa indartzea, eskualdeko ostalaritza sektoreari bultzada ematea eta Klub Gastronomikoa ezagutzera ematea" dira. 15 egunetan zehar, ekimenera atxikitutako establezimenduek bertako eta sasoiko produktuez baliatuz proposamen gastronomiko berritzaileak landuko dituzte, bezeroei prezio berezietan eskaintzeko: Tripontziak Menuak 25 eurotan, Tripontziak Pintxoak 5 eurotan (2 pintxo eta 2 edari) eta Tripontziak Egonaldiak (ostatua gosariarekin, Tripontziak menua eta oparia) 48 eurotan pertsonako. Parte hartzen dutenen zerrenda eta eskaintzen diren menuak www.debabarrenaturismo.com/eu/gastronomia webgunean kontsultatu daitezke. Eibarren Azitain erretegiak eta Kultu eta Koskor tabernekin hartzen dute parte.



San Andres I. Argazki Rallya

Arrate Kultur Elkarteak San Andres egunerako I. Argazki Rallya antolatu du, 10:00etatik 13:30era bitartean. Parte hartzera animatzen direnentzat bete beharreko baldintzak eta argazkietarako gaiak egunean bertan banatuko dituzte, Topalekuan, 09:30etik 10:00etara. Izen-ematea ere orduan egingo da. Adinaren arabera hiru maila bereiziko dituzte (0-12 urte; 12-18 urte; eta 18tik gorakoak). Txikienen mailan parte hartzen duten guztiei detailea emango diete; gazteen mailan, berriz, lehenak tablet bat eta bazkidetza jasoko ditu eta bigarrenari bazkidetza eta sorpresa oparitutako dizkiote; eta helduen mailan lehena geratzen denari Errigorako oterra eta bazkidetza emango dizkiote eta bigarrenari bertako produktuen oterra eta bazkidetza.



Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Bidebarrieta 20
Tlfno: 943 20 16 69



Umeendako Christmas lehiaketa

Gabonetako
Christmas
lehiaketa

3-12 bitarteko haurrentzat

Aurkeztzeko
egun:
ABENDUAK 11
TARTEKAN

GINARRIAK:
- Din A4 batean
- Edozein teknika erabiliz
Marrakiekin batera
sobre irri bat txerako
datuekin: izen abizenak,
telefonoa eta adina

SARIAK:
-1. Kategoria: 3-6 urte
Kutxa magikoa
-2. Kategoria: 7-12 urte
Mahai jolasa eta
artistaren kaxa

TARTEKA SORMEN ESPAZIOA

Hizkuntza: Ingeles / Frantses / Espainiar / Arabieraz
Telefonoa: 943 24716

Informazio gehiago:
www.tarteka.org
Telefonoa: 999 95279

Tarteka Sormen Espazioak 3-12 urte bitarteko umeentzat Gabonetako Christmas lehiaketa antolatu du. Parte hartu nahi dutenek abenduaren 11rako eurek egindako postala entregatu beharko dute, DIN A4 formatuan, abenduak 11 baino lehen Tarteka Sormen Espazioan (Elgeta Kale, 1). Onentzat sariak egongo dira (3-6 urteko mailan kutxa magikoa eta 7-12 urtekoen mailan, berriz, mahai jolas bat eta artistaren kutxa). Informazio gehiagorako info@tarteka.org helbidera idatzi edo 943249161/699495279 telefonoetara deitu.



Margolan erakusketa Topalekuan

Gaur arratsaldean inauguratuko dute Elisabet Eguren eta Cristina Azpiriren margolan erakusketa Topalekuan. Ikusi nahi duenak horretarako aukera izango du abenduaren 6ra arte, ohiko ordutegian: astegunetan 19:00etatik 21:00etara eta asteburu eta jaiegunetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.



Aurreko hilean egindako kalejira amaitzean, zozketa egin eta argazkian ikusten duzuen suertatu zen otarraren irabazlea.

Kantuzaleak eta trikitilariak kalejiran gaur arratsaldean

Gaur 19:30etik aurrera Eibarko Kantuzaleak abesbatzak hileroko kalejirari ekingo dio Untzagatik, Musika Eskolako trikitilari gazteekin batera. Aurreko hilean egindakoaren bidetik gaur ere rifak saltzen ibiliko dira, Aste Santuan Irlandara bidaiari joateko dirua batzeko asmoz. Txartelak euro bat balio du eta saria otar ederra da (zozketa gaur bertan, kalejira amaitu eta jarraian, 21:30ak inguruan egingo dute).

FAMILIA ABOKATUA
ELENA MUGUERZA ORMAECHEA

**Familiako eta ondorengotzetako
(herentziak) abokatua**

Dibortzioak

Gaitasun-ezak

Ondorengotzak

Aitatasun erreklamazioak

Erregimen ekonomikoa

Juan Gisasola, 4 - 2. eskuma
94 661 22 00

F. CALBETÓN, 23
TEL. 943 53 05 26

*Gosariak eramaten ditugu etxera asteburuetan
Enkarguak etxera eramaten ditugu*

Ogietan aukera zabala Ogi beroa
Tartak Pastelak Sanblasak
Era askotako pizzak
Okela eta atun enpanadak
Arrautzak Esnea Edariak
Kafea Prentsa Aldizkariak

Egunero: 07.00-21.00 Jaiegunetan: 07.00-20.00

Hemen, kalitatea

OGI BERRI
ARTESANOS PANADEROS



Aireratu euskara Eibartik mundura

Albistearen izenburuan irakurzen duzuen esaldi hori izango da Euskararen Nazioarteko Egunaren harira aurten gure herrian egingo direnentzat aukeratutako goiburu nagusia. Azken urteotako martxari jarraituta, Eibarko euskalgintzak, udalaren babesarekin, abenduaren 3an mundu mailan ospatzen den Euskararen Egunaren harira egitarau berezia prestatu du, goizetik hasi eta arratsalderaino garatzeko moduko jarduera mordoarekin. Aurtengo ekitaldiko protagonista nagusiak globoak izango dira eta, hain zuzen ere, aurtengo leloa globo horiei lotuta asmatu dute.

Egitaraua goizetik hasiko

da, Untzagan egongo den Mintzodromoa martxan ipintzearekin batera. Bazkaltzeko ordua ailegatu bitartean, goiza herriko ikastetxe guztietako ikasleek beteko dute gehienbat, adinaren arabera taldeetan antolatuta atzera-aurrera ibiliko dira eta. Eta arratsalderako, berriz, parte hartu nahi duten guztientzat zabalik Untzagan egingo den ekitaldia prestatu dute: euskararen egunaren inguruko jaiak 18:00-etan hasiko da, euskal musikaren erritmora egingo den zumba saioarekin. 45 bat minutuko iraupena izango duen dantza saioa harmailetan egingo da, monitoreen laguntzarekin. Ondoren, egunean zehar

DBHko ikasleek idatzitako euskararen aldeko esaldiak irakurriko dituzte eta 18:45ak aldera jendeari helioz betetako globoak banatzen hasiko dira. Denera 500 globo banatzeko asmoa daukate, 19:00-etan denak elkarrekin askatu eta, airean gora joango diren globoekin batera euskara ere aireratzeko eta, horrela, "euskarari haizea, hauspoa eman eta gure aldarrikapena lau hai-

zetara zabaltzeko. Eta, lasai, erabiliko diren globoak eta sokak ekologikoak dira eta, beraz, ez dute kutsatuko". Amaieran nahi dutenek "Euskeraz bizi nahi dut" kantuarekin dantza egiteko aukera izango dute. Eibarko euskalgintzak herritar guztiak Untzagara gerturatzerantz animatu nahi ditu, "Eibarren ere euskaraz bizi nahi dugula lau haizetara aldarrikatzeko".

EUSKERAREN EGUNA 2015

Goizean MINTZODROMOA Untzagan

- 10:00 - 11:00: LHko 5. eta 6. mailetako ikasleak.
- 11:00 - 12:00: Batxilergoko ikasleak.
- 12:00 - 13:00: DBH 1. eta 2. mailetako ikasleak.
- 13:00 - 14:00: DBH 3. eta 4. mailetako ikasleak.
- 14:00 - 15:00: Iturburuko ikasleak.

Arratsaldean EKITALDI IREKIA Untzagan

- 18:00: Zumba-saioa, monitoreen laguntzarekin, Untzagako harmailetan (45 minutu).
- 18:30 - 18:45: Euskararen aldeko mezuak irakurriko dira (DBHko ikasleek egindakoak). Tartean, Euskararen Egunarekin bat egin nahi dutenek euren izena horma-irudian idazteko aukera izango dute.
- 18:45: Helioz betetako 500 globoak banatzen hasiko dira.
- 19:00: Globoak aireratuko dira.



EROSKETAK ERE EUSKERAZ

Asteburu honetatik aurrera pegatina hau erabiliko dute herriko dendariak opari-paketeetan

Atean ez gelditu
euskeraz aritu!



Babesleak



laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, OIER Atondo Pedrera, hillaren 24an 3 urte egin zenduazena. Patxito bat guraso, Beñat eta amamaren partez. Segi hain alai!



Zorionak, KAREN, azaruaren 10ian zazpi urte egin zenduazena. Famelixaren eta, batez be, Naiararen partez.



Zorionak, LUR, gaur lau urte egiten dozuz-eta. Muxu handi bat etxekuen eta, batez be, Aiora eta Peruren partez.



Zorionak, HAIZEA, bixar bederlatzi urte beteko dozuzelako. Laztan handi bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, MADDI, abenduaren 4an hiru urte beteko dozuz-eta. Ondo pasau eguna eta muxu potolo bat famelixaren partez.




Zorionak, LUHAR Olabegejaskoetxea, hillaren 19xan zazpi urte egin zenduazena. Muxu handi bat aitxixa-amamen partez.



Zorionak, ORIOL, San Andres egunian lau urte egingo dozuz-eta. Muxu handi bat famelixaren eta, batez be, UDANERen partez.



Zorionak, NORA, hillaren 24an lau urte bete zenduazena. Muxu handi bat etxekuen eta, batez be, FRANCESCOREn partez.




Zorionak, JOSE RAMON eta LOURDES, hillaren 30ian zuen urrezko ezteiak beteko dozuez-eta. Zuen lagunen partez.



Zorionak, MADDI eta JARE, astelehenian hiru urte egin zenduazena. Muxu handi bat Elene, Maddalen eta etxeko danon partez.



Zorionak, UNAI, zure zortzigarren urtebetetzian. Famelixa guztiaren eta, batez be, IRALren partez.



Zorionak, NAHIA eta IKER!! Eta patxo handi bat etxekuen partez.



Zorionak, JULE, abenduaren 3an zortzi urte egingo dozuz-eta. Muxu handi bat etxekuen partez.



Zorionak, IZAR!, gaur sei urte betetzen dozuz-eta! Laztan handi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, OIHAN, abenduaren 1ian zazpi urte beteko dozuz-eta. Muxu handi bat etxekuen partez.

hildakoak

- Elena Etxebarria Unamuno. 92 urte. 2015-XI-19.
- Balbina Larringan Loroño. 93 urte. 2015-XI-19.
- Milagros Martinez Pato. 92 urte. 2015-XI-20.

jaiotakoak

- Basma El Idrissi. 2015-XI-14.
- Mikel Salaberria Goikoetxea. 2015-XI-17.

zinea Coliseoan



(1 ARETOAN)
28an: 17.00, 19.45, 22.30
(1 eta 2 ARETOETAN)
29an: 17.00, 20.00
30ean: 20.30

"Ocho apellidos catalanes"
 Zuzendaria: Emilio M.-Lazaro



(2 ARETOAN)
28an: 17.00, 19.45, 22.30
(ANTZOKIAN)
29an: 17.00, 20.00
30ean: 20.30

"Los Juegos del Hambre"
 Zuzendaria: Francis Lawrence

BARIXAKUA 27

GAZTELEKUA

16.30. Play/Wii eta futbolen txapelketa. Indianokuan.

GABON FESTA

18.00. "Petizia dator!" (txokolatea, fantasia, globoflexia...) eta argiak piztea. El Corte Inglesean.

BELDUR BARIK

18.30. Eibar Beldur Barik jaialdia, lanak aurkeztu eta sariak banatzeko. Aurretik bertso-saioa, Eli Pagola, Manu Goigana eta Nerea Elustondo bertsolariekin (gai-jartzailea, Desiree Magro).

PINTXO-POTE BEREZIA

19.00. Cueto krianzako 9 litroko bi botila zabalduko dira eta Cueto krianza edo 1/3 San Miguela eskatuta, ukondoa eta saltxitxa-pintxo doan. Gurbil jatetxean.

KALEJIRA

19.30. Eibarko Kantuzaleak & Musika Eskolako trikitilariak. Otarraren zozketa (21:00ak aldera). Untzagatik abiatuta.

INAUGURAZIOA

19.30. "Eibar 75 urte kromo bilduma" erakusketa. Untzagako jubilatutako etxean.

BAKAILAO TXAPELKETA

19.30. XXIII. edizioaren aurkezpena eta parte hartuko dutenei produktuak banatzea. Untzagan.

USTEKABE

22.00. Rock kontzertua: LosDelGas (Erreñeria), Skapital City (Eibar), The Rockos (Eibar) eta Besteik-pe (Donostia). Ustekaberen 15. urteurrenaren harira. Untzagako karpan.

KONTZERTUA

00.00. Ainhoa Cantalapiedra ('Operación Triunfo'). Kontent tabernan.

ZAPATUA 28

TXISTORAREN EGUNA

09.15/22.00. XIII. edizioa. Kilometro bat txistorra pintxotan salgai ipiniko da. Egunean zehar kirol erakustaldiak, musika, jokoak... Eibarko Txirindulari Elkarteak antolatuta. Untzagan.

FANFARRE-TOPAKETA

17.30. Fanfarreak auzo guztietan kalejiran ibiliko dira, Ustekaberen 15. urteurrena ospatzeko.

19.00. Talde guztiak Urkizun elkartzea.

19.00. Kalejiran Untzagara, han alardea egiteko.

GAZTELEKUA

17.00. Sukaldaritza (taloak). Indianokuan.

KIROLA FAMILIAN

17.30. 2-5 urteko haurrak dituzten familiendako. Ipuru kiroldegian.

ZAPATUKO IPUINA

18.00. "Mundu berri.nol?" (3 urtetik gorakoentzat), Ana Rodriguez Apikaren eskutik. Sarrera libre. Liburutegian.

GABONETAKO TAILERRA

18.00. Umeendako. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

JAIXAK HERRIXANDAKO

19.30. Elektrotxaranga kalejiran abiatu, Untzagatik.
23.30. Kontzertua: Joxe Replay eta Mugi Panderoa. Jaixak Herrixak Herrixandakok antolatuta. Untzagako karpan.

KONTZERTUA

20.00. "Gora Opera!", Sostoa abesbatzaren eta Opera Divertimentoren eskutik. 15 euro. Coliseoan.

DOMEKA 29

EIBAR KROMO-ALBUMA

11.00. "Eibar 75 urte kromo bilduma" erakusketaren harira, kromo-albuma salgai ipiniko dute. Untzagako jubilatutako etxean parean.

BAKILLAUAREN KOFRADIXIA

10.30. XXII. kapitulu. Kanpotik etorritako kofradiei ongietorria eta hamarretakoa. Ipur sagardotegian.

11.30. Kalejira herriko kaleetan, Portaleraino.

12.00. Kofrade berriak izendatzea eta Eibarko Kaleetan Kantuz abesbatzaren emanaldia.

13.00. Herri-txikiteoa, Eibarko Kaleetan Kantuz-ekin.

14.30. Bazkaria. Ipur sagardotegian.

BAKAILAO TXAPELKETA

11.00. XXIII. Txapelketa "San Andres Saria". Untzagan.

EIBAR-REAL MADRIL

11.00. Hamaiketako, Untzagako Jubilatutako Etxean.

12.00. Armagin-poteoa.

14.50. "Kafe-torerroa"

Gurbil tabernan (kafea-sorbetea-txupittoa).

16.00. Jokalariei harrera Ipuruan, banderekin. Eskozia La Bravak antolatuta.

JAIXAK HERRIXANDAKO

12.30. Trikipoteoa, Untzagatik abiatuta.

14.00. Bazkaria.

16.00. Erromeria eta fandango eta arin-arin "free style" txapelketa. Jaixak Herrixak Herrixandakok antolatuta. Txaltxa Zelaian.

HERRI-KIROL PARKEA

16.30. Herri Kirolen Haur Parkea, Kulkiren eskutik (euskeraz). Untzagan.

GAZTELEKUA

17.00. Film baten emanaldia. Indianokuan.

KIROLA FAMILIAN

17.30. 2-5 urteko haurrak dituzten familiendako. Ipuru kiroldegian.

DANTZALDIA

18.30. eMePebo5t taldearekin. Untzagan.

ASTELEHENA 30

SAN ANDRES EGUNA

09.30. XXXVIII. San Andres Nekazal Azokaren epai-mahaia beharreen astea. Abere-erakusketa (Errebalen).

12.00. Gipuzkoa Poliklinika Bikoteka Aizkolarien Txapelketa (Errebalen).

12.00. Narbaiza eta Gorrotxategi bertsolarien eta Jainaga eta Narbaiza trikitilarien emanaldia, Untzagan, & J.B. Gisasola Musika Eskolako trikitilarien kalejira.

12.30. Plazara Dantzara erromeria, Jainaga eta Narbaiza trikitilarietara, Kezka Dantza Taldearen eskutik.
13.00. San Andres azokako, pintxo-txapelketako eta kartel-lehiaketako sariak banatzea. Untzagan.

MARTITZENA 1

IKASTEN

10.00. "Leonardo Da Vinci" hitzaldia, Ricardo Aldamaren eskutik. Armeria Eskolan.

IKASTEN

16.00. Punto tailerra.
17.00. Joskintza tailerraren lehen txanda (bigarrena 18:30etatik aurrera). Portalean.

HARIXA EMOTEN

19.00. Irakurketa-taldearen saioa. Jabier Muguruzaren "Hilen logika ezkutua" liburua. Portalean.

EGUAZTENA 2

IKASTEN

10.12. Mendi ibilaldia: "Orio-Talaimendi-Mollari-Zarautz" (bazkaria eraman). Trenaren irteera ordua, Ardantzatik (Estaziñotik 10:14ean).

HITZALDIA

19.00. "Los atentados en París / La alianza occidental para la guerra / Guerra en Siria / Refugiados y derechos de asilo / Libertades democráticas". Eibarko Preocupaciones Ciudadanas taldeak antolatuta. Arrate Kultur Elkartearen.

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Abesbatzaren entsegu. San Andres elizako lokalean.

EGUENA 3

IKASTEN

10.00. "Leonardo Da Vinci" hitzaldia, Ricardo Aldamaren eskutik. Armeria Eskolan.

EUSKERAREN EGUNA

18.00. Zumba-saioa, monitoreen laguntzarekin, Untzagan (harmailetan).
18.30. DBHko ikasleen mezuak irakurtzea; nahi duenak horma-irudian bere izena idazteko aukera.
18.45. Helioz betetako globoak banatzen hastea.
19.00. Globoak aireratzea. "Euskeraz bizi nahi dut" kantuarekin dantza. Untzagan.

ZINE-FORUMA

19.00. "Una canción para Marion", Loredi Salegik dinamizatuta. Defibel eta Pagatxaren eskutik. Portalean.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Abesbatzaren entsegu. San Andres elizako lokalean.

erakusketak

✓ Azaroaren 29ra arte

“1905 BOJ 2015” erakusketa. Armagintzaren Museoa.

EXFIBAR 2015 XLVI. SEILU erakusketa. Portalean.

Ordutegi Berezia: lanegunak (18:00-20:00), asteburuan (12:00-14:00 eta 18:00-20:00).

✓ Azaroaren 30era arte

“CLUB FOTOGRAFICO 76” argazki erakusketa. Deportiboan.

OSKAR BAGLIETTOREN “Instantes en la montaña” argazkiak. El Ambigu tabernan.

IÑAKI CAMPOSEN “Metronomos” argazki-erakusketa. Portalea tabernan.

IÑAKI CAMPOSEN rock taldeen argazki-erakusketa. Ez Dok tabernan.

MUNDUKO PAISIAK - LIBURUTEGIAK TOPALEKU “Kulturantzazuna”. Liburutegian.

✓ Abenduaren 6ra arte

ELISABET EGUREN ETA CRISTINA AZPIRIREN margolanak. Topalekuan.

✓ Abenduaren 12ra arte

“EIBAR 75 URTE KROMO BILDUMA” erakusketa. Untzagako Jubilatut Etxean.

lehiaketak

✓ San Andres I. Argazki Rallya

Noiz eta non: Azaroak 30 (10:00-13:30). **Izen-ematea:** Baldintzak eta gaiak Topalekuan egunean bertan (09:30-10:00). 0-12 urtera arte doan; 12-18 urtera arte 3 euro; 18 urtetik gora 6 euro bazkideek, 8 euro besteek).

✓ Christmas Lehiaketa

Noiz eta non: 3-12 urte bitarteko umeei Gabonetako Christmas bat entregatu beharko dute, DIN A4 formatuan, **abenduak 11 baino lehen** Tarteka Sormen Espazioan (Elgeta Kale, 1). Informazio gehiago: 943249161/699495279.

✓ Tripontziak Lehiaketa

Noiz eta non: abenduaren 1etik 15era, Debabarreneko Klub Gastronomikoko 11 establezimendutan. Eskaintza bereziak menu, pintxo eta egonaldietan. Informazio gehiago: www.debabarrenaturismo.com/eu/gastronomia webgunean.

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulatorioa.....	943 03 25 00
Torrekua.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Lurraldebus.....	943 00 01 17
Pesa.....	900 10 14 00
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.....	650 26 59 63

ikastaroak

✓ “Jolas eta ipuin ez sexistak!”

Guraso, tutore, hezitzaile eta irakasleentzat. **Noiz eta non:** abenduaren 1ean (gaztekeraz) eta abenduaren 2an (euskeraz), 18:30ean Andretxean. Irakaslea: Oihana Etxebarrieta (Emagin elkarte).

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

SUDOKUA

9			7	1				5
		7		4	8	1		
	2						7	
1				7	4			6
			3					
4		3	1					2
	1						2	
		6	9	1		5		
2			5	3				1

4	5	2	9	7	6	3	8	1
8	6	1	3	5	2	9	4	7
9	7	3	4	8	1	6	2	5
5	8	6	2	4	3	1	7	9
3	1	4	6	9	7	2	5	8
7	2	9	5	1	8	4	6	3
6	9	8	1	2	5	7	3	4
2	4	7	8	3	9	5	1	6
1	3	5	7	6	4	8	9	2

AURREKOEN EMATZA

farmaziak

- ✓ **barixakua 27**
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
- ✓ **zapatea 28**
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- ✓ **domeka 29**
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- ✓ **astelehena 30**
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
- ✓ **martitena 1**
EGUNEZ Larramendi (Calbeton, 19)
- ✓ **eguztena 2**
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- ✓ **eguna 3**
EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **barixakua 4**
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)

GAUEZ BETI

Elorza (J. Gisasola, 18)

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai San Vicente de la Sonsierran (Errioxa). 4 logela, egongela, sukalde, bi komun eta ganbara. Tel. 615-759399.

1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 697-754174.
– Pisua alokagai Txonta kalean. 2 logela, egongela, sukalde eta komuna. Tel. 609-175333.
– Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 632-192408.
– Familia batek pisua hartuko luke alokairuan Eibarren edo inguruan. Tel. 642-349114.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Martxan dagoen taberna traspasatzen da Isasi kalean. Bezero finkoekin. Prezio interesgarria. Tel. 695-711730.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gauz ere. Tel. 632-771519.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 629-817299.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-425686. Laura.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 652-683273.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Geriatria formazioa eta esperientziarekin. Tel. 686-561811.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Pediatría eta Geriatria formazioarekin. Tel. 608-341064.
– Mutila eskaintzen da sukalde-laguntzaile moduan, dendarri jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 674-724072.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta gauz ere. Tel. 682-277198.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauz ere. Esperientziarekin. Berehala hasteko moduan. Tel. 633-808931.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 688-820508.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Baita gauz ere. Tel. 662-012834.
– Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 639-988593.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 639-988593.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. Tel. 622-225561.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 646-778839.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 685-768026.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 658-458271.
– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaindu, baserriaz arduratu, sukaldean lagundu eta pegorak garbitzeko. Tel. 637-074529.
– Gizonezkoa eskaintzen da banaketak, zalmalanak edo garbiketarako egiteko eta urdu-gaztelera-urdu interprete lanak egiteko. Tel. 666-107260.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernan jarduteko. Tel. 674-377765.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 631-354043.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernak, etxeak edo pegorak garbitzeko. Tel. 943-901752.
– Mutila eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 637-074529.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-426847.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduetegi zabala. Esperientziarekin. Tel. 672-442318.
– Neska eskaintzen da soziedadeak, pegorak edo bulegoak garbitzeko. Tel. 943-700229 eta 638-421827.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 626-197217.
– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko, bantzaile jarduteko, etb. Tel. 632-855281.
– Emakume euskalduna eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 09.30etik aurrera. Tel. 646-892162.
– Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-743240.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-389174.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-827889.
– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-748977.
– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-454417.
– Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 637-102725 eta 943-744033.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-384325.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako lanak egiteko eta ostalaritzan edo tailerlean jarduteko. Tel. 602-815492.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 602-051309.
– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 677-736060.

4.2. Langile bila

– Neska behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 699-912181.
– Neska euskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 646-616608.
– Emakumea behar da bikote nagusia zaintzeko asteburuetan. Interna. Tel. 600-711094.
– Sukaldari-laguntzaile behar da jatetxe baterako. Tel. 620-810120.
– Kamarera/o behar da asteburuetan lan egiteko. Tel. 620-810120.
– Ilepaintzailea behar da barixaku eta zapatu-erako. Tel. 943-201853.
– Sukaldaria behar da pintxoak eta kazuelak prestatzeko. Barran esperientzia izatea baloratuko da. extrairbar2015@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Matematikak, Fisika, Kimika, Lengoia, Kontabilitatea eta Ekonomia klaseak ematen ditut. DBH, Batxilergoa eta Heziketa zikloak. Tel. 685-739709 eta 943-127365.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Sarrerako altzari klasikoa salgai, butakoia-ekin. Kalidade onekoa, egoera oso onean. Tel. 656-733572.
– PSP fundarekin eta Play Station 2 (Slim) salgai. la erabil gabe. Jolasak opari. Tel. 671-846270.

6.2. Eman

– Mendiko bizikleta oparitzen dut. Tel. 666-444074.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Eguazten goizean (07:30 inguruan) motxila urdina galdu nuen Untzagako Jubilatutako Etxeko arkupe inguruan. Eskolako materiala, betaurrekoak eta dokumentazioa zuen karteratxoa zegoen barruan. Tel. 616-480865.
– Urrezko pultsera galdu genuen aurreko asteburuan. Iraia jartzen du bertan. Tel. 646-280237.
– Orain dela 15 egun umearen motorra ahaztu nuen T. Etxebarrian. Urdin eta hori kolorekoa, Hugo jartzen du. Tel. 677-309013.

6.4. Bestelakoak

– Elkarte gastronomiko bateko kidea izatea nahiko nuke eta aukera desberdinak ikustea. Tel. 667-516350.

Probatu zure zentzumena

Probatu zure audifono berriak 30 egunetan



Egokitzapen bermatua



Kontsultatu baldintzak denda honetan.

 **audiocentro**
Igmar

Julian Etxeberría, 2
20600 Eibar
Tel. 943 20 26 99

Audioprotesis goi mailako teknikaria: Antón Martinena

Entzumen-test integralak

Audifono digitalak

Neurrira egindako tapoiak

Konektibitate-soluzioak

Mantentze-tekniko integrala

Neurrira egindako finantziazioa

NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

ZELETA BARAZKIAK



Ekoizpen prozesuan energia berriztagarriak erabiltzen ditugu



- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Ortutik mahaira: Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

Orain Eibarko BM-n ere bagaude

Ekoizpenaren %100 hazte-zikloa zainduz eta tratamendu kimikoen erabilera saihestuz lortzen dugu

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa - ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • www.zeletabaserria.com

“Turismoa goruntz doa Euskal Herrian eta une bikaina da ETXEAK epe motzeko egonaldietan ALOKATZEKO”



– Zer da Basque Stay? Etxejabe partikularren apartamentu/pisu/txalet-entzako epe motzeko erreserbak lortzeaz arduratzen den enpresa gara. Gure balio erantsia da check in eta garbiketa/mantenimenduaz ere arduratzen garelara. Horri esker, etxejabeak ez dauka ezer egin beharrik, gu arduratzen baikara guztiaz.

– Etxean arazoren bat suertatuz gero, adibidez, giltzak galdu dituztela bezeroek edo bapatean ur berorik gabe gertatu badira, etxejabea arduratu behar da konponketaz? Ez!!! Gu arduratzen gara etxe horren inguruan sortzen den guztiaz. Etxejabeak ez du ezer egin beharrik: lehen egunerako etxea garbi eta hutsik laga bakarrik.

– Eta horrelako arazoaren konponketak nork ordaintzen ditu? Kasu bakoitza aztertzen da. Adibidez, TV puskatzen bada, altxaririk erori delako, bezeroak ordaintzen du eta badaukagu hori horrela izango dela ziurtatzeko metodoa. Baina bestalde, adibidez, bapatean uraren galdaran matxura badago, etxearen beraren gaia dela ulertzen da eta hori etxejabeak ordaindu behar du, epe luzeko alokairu arruntean gertatzen den bezala. Giltzak galdu baldin badituzte, bezeroak ordaindu behar du, noski.

– Noiz hasi zineten horretan? Basque Stay-ren ideia 2014ko martxoan “jaino” zen, irailean enpresa bezala inskribatu ginen eta lehen etxea 2015eko apirilean ipini genuen alokatzen.

– Eta zer moduz joan da? Lehen etxea iragartzen ipini genuenetik, lehen erreserba sartzera bi ordu bakarrik pasa ziren eta egun horretan bertan sartzeko zen gainera!!! Hortik gaur arte ez gara geratu. Beraz, oso ondo joan dela esan genezake.

– Zein da zuen aktuazio eremua? Momentuz Gipuzkoako kostaldean dauden sei herriko 20 etxerekin gabilta. Eta, kostaldea esatean, Eibar kostalde bezala ulertzen dugu. Guretzat Debatik urruti dago, baina Houston-go familia bantentzat Eibar hondartzaren lehenengo lerroa da!!! Gainera, ez

dugu inongo arazorik Lekeitio, Mundaka edo Bilboko etxeekin berdina egiteko.

– Eta zer kobratzen du Basque Stay-k bere zerbitzuengatik?

Gu lortutako diru sarreren portzentaia batekin geratzen gara; hau da, ez dugu kantitate finkorik kobratzen. Horrela, guri ere interesatzen zaigu etxeak ongi funtzionatzea, horren arabera kobratuko dugu-eta. Bestalde, kasu konkretu batzuetan errenta finkoa ordaintzen diogu etxejabeari, eta hortik gora lortzen duguna Basque Stay-rentzat geratzen da. Horrela, etxejabeak diru sarrera finkoa du eta ez du inongo dudarik edo beldurrik izaten irabazi dezakeen diruarekiko.

– Edozein etxe hartzen duzue edo exigentzia batzuk ipintzen dituzue?

Edozein etxe ez, baina oraingoz inori ez diogu ezetzirik esan: etorri zaizkigun etxejabe denekin iritsi gara akordio batetara. Kasu batzuetan, etxeak erreforma bat behar izan du eta erreforma hori nola finantzatu adostu izan dugu. Eskatzen duguna da guri etxea garbi eta objektu pertsonalik gabe uztea. Hau da: nobelak, paisaien argazkiak eta halakoak bai; baina argazki pertsonalak, arropak etabar ez.

– Urte osorako libre izatea exigitzen al duzue?

Ez. Zalantzarik gabe, Basque Stay-rentzat urte osoan zehar etxea libre izatea da interesgarriena, baina badaukagu kasu batzuk urtean zehar ikasleei alokatzen zaiela etxea eta uztailean eta abuztuan gure esku geratzen direla. Beste kasu batzuetan etxejabea bera joaten da etxe horretara urteko epe baterako, adibidez abuztu osorako, eta urteko beste 11 hilabeteetan libre geratzen da. Lehen esan bezala, malguak gara eta etxejabearen beharretara egokitzen gara.

– Uda joan den honetan, zein da zuen lan nagusia?

Etxeen bila gabilta, eta hainbat etxejabearekin izan gara dagoeneko. Hurrengo urterako eskaintza handiagoa izan nahi dugu, etxeak oso ongi saltzen direla ikusi dugu-eta udaberrian hasi ginenetik orain arte. Hori dela-eta, aukera bikainaren aurrean gaudela uste dugu epe motzeko alokairuan.

www.basquestay.com
606 74 77 56
info@basquestay.com



BEÑAT LARRAÑAGA ETA IÑIGO LAZKANO